DATORRENA

Ortzadar bandera eta ikur berdea udazken politikoan

MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Ezkerraren zilbor demontrea, psikoanalisirako kasu serioa

MIKEL ZUBIMENDI BERASTEGI > 11

GAUR8

2019ko irailaren 28a | XIII. urtea • 639. zenbakia
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

BAKARDADEAK GARAITU ZITUENAK > 12

GAUR8
mila leiho zabalik

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Xabier Izaga Gonzalez. **Argitaratzailea:** Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxa: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.

SINADURAK:

Askapenako brigadak, Argentinan eta Uruguain, elkartasunaren bideetan barrena 04

Analisia: Greta eta klima 08

Basamortuko bakardadeak garaitu zituen artzainen omenez 12

Alfonbra gorria merezi dute 17

Gazteen ikerketarako grina piztu nahi du Elhuyarrek 18

Elkarrizketa: Mari Carmen Basterretxea 22

In fraganti: Maitane Alonso 27

Juantxo Egañaren behatxulotik 31

03 **Maite Ubiria Beaumont:** Ortzadar bandera eta ikur berdea udazken politikoan

10 **Ander Gortazar Balerdi:** Baldintzatu, ahalbideratu

11 **Mikel Zubimendi Berasategi:** Ezkerraren zilbor demontrea, psikoanalisirako kasu serioa

16 **Alai Zubimendi**

19 **Maider Iantzi Goienetxe:** Gorputzetik

19 **Xabier Mikel Errekondo:** Txotxongiloak gara?

20 **Gorka Zozaia:** Mario Bungeren mendebetetzean

21 **Iker Barandiaran:** Oroimena jantzi

30 **Garazi Goia:** Deshumanizazioaz

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA

Gipuzkoako Foru Aldundia

{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Ortzadar bandera eta ikur berdea udazken politikoan

Frantses Legebiltzarrak abiatu berri duen eztabaida egutegiak garrantzi handia izan dezake Emmanuel Macronen presidentetzari buruzko kontakizuna idazteari begira. Bederatzi hilabete luzez gobernu jarduna eta hedabide nagusien agenda guztiz eraldatu zituen Txaleko Horien mugimendua sortu zenetik lehen urtemuga beteko da heldu den azaroaren 17an. Data horri zeharka begiratuz, krisia gainditutzat eman eta norabide aldaketaren emaitzak behar ditu mahai gainean jarri azken garaian gehienbat nazioarteko profila berreraikitzeko ahaleginak egin dituen Macronek.

Pentsio sistemaren erreforma izanen da, zalantzarik gabe, urte politiko berrian tenperatura gora eraman dezakeen egitasmoa. Ohikoa zen "urte hasiera beroaren" eskema gaindituz, borroka ezberdinen arteko uztarketa izan daiteke udazkenak ekar dezakeen aldaketarik esanguratsuenetarikoa. Justizia soziala eta justizia klimatikoa txanpon beraren bi alde gisa hartuz borroken konbergentzia alternatiba bakarra zela ondorioztatu zuen, dagoeneko, Irun-Hendaian egin zen G7aren aurkako kontragailurrean parte hartu zuen CGT sindikatuko buru Philippe Martinezek.

Klimaren Aldeko Asteak eremu ezberdinetan jarduten duten herritar dinamikak harilkatzeko asmo horiek baieztatu ditu. Hartara, oso bestelako borroken gaineko erreferentziek diskurtsoak hornitu dituzte, oraindik ere guztiz margotu gabe dagoen alternatiba irudikatuz.

Komunikazioaren kolpe efektuek ez diote babes aski eskaini Macroni, bere gobernuak ez baitu benetako engaiamendurik azaldu trantsizio ekologikoari begira. Hori dela eta, ikur berdea fite herdoildu ahal zaiola jakitun, bere agintaldiak eskas duen sendotasun bila, unibertso sozial-sinbolikoaren katalogoa arakatzeari ekin dio, bandera aproposago baten bila. Kasurik txarrenean bere presidentetzari dirdira labur bat emanen dion garaipen bat, eta, onenean, askoz preziatuagoa den saria, transzendentziaren ospea, ekar diezaiokeen egitasmo izar bat behar du Eliseoko apopiloak.

Kartak mahai gainean jarri eta aldez aurretik irabazita ez dagoen partidari hasiera eman zaio, hortaz, Asanblea Nazionalean. Batzuetan ohituren bilakaera osasuntsu baten ondorioz, beste batzuetan gogo eta eskubideen artean nahasmen handia sortu ostean lehenak piztera eta bigarrenak itzaltzera jokatzen duten merkantilizazio joerek lagundurik, gizartean txertatu diren jokabide berriei isla juridikoa eman nahi dion Bioetikaren Legeak hartuko du arreta. Egitasmo zabala, sakona, poliedrikoa izanki ere, txinparta gehien sortuko duen mamia PMA medikuntzaz lagundutako ernalketa sistema emazte guztiei –beste emazte bat maitatu edo bakarrik bizi direnei barne– zabaltzeko egitasmoa izanen da. Badira hogei urte, udazken batean ere, izatezko bikoteak arautu zituen PACs legea onartu zuela Frantziak. 2013ra arte ez zuen, ordea, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza arautzeko legea onartu. Berdin, PMA delakoa 2004an onartu bazen ere, lege berria behar luke aldarrikatu ondoko hilabeteotan emazte guztiei aukera hori zabaltzeko. Lege horri esker bere agintaldirako finkatu zuen gizon eta emazteen arteko berdintasunaren helburuari ekingo lioke Macronek, ortzadar koloreko adaxka helduta. Eskubideen desarautze eta egiturazko injustiziaren enborra ukitu gabe ere, garaipen sinboliko bat lortuz. •

> Feminizidioak ez du etenik, merkantilizazio basatiak agindutako desarautze joerak ere ez, eta, pentsioen erreforma garratzaren atarian, PMA ernalketa sistema ikur hartuta garaipen sinbolikoa bilatzen du Macronek

atzerria

ASKAPENAKO BRIGADAK (III)

Elkartasunaren bideak jorratuz Argentina eta Uruguaiko brigadan

ELKARTASUNA / Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Amaitu berri den udan Argentina eta Uruguaira joandako brigadako kideek bertako herrritarren arteko elkartasun egitasmoak ezagutu dituzte, gobernuen politikei aurre egiteko aukera komunitarioak eraikitzeko asmoz martxan jarritakoak. Euskal Herriko eta beste herrialde batzuetako preso politikoekiko elkartasuna ere ezagutu dute.

Bidaia mamitsua izan zuen Argentina eta Uruguaira joan den uztailaren bukaeran joandako Askapenako brigadak. Lehenengo orduetatik esperientzia politikoekin, elkarrizketekin eta elkartasun adierazpenekin betetako jardunaldiak bizi izan zituzten brigadistek.

Montevideon egondako lehen orduetan La Senda proiektua ezagutzera abiatu ziren brigadistak, lehenengo pausuak ematen ari den proiektua. «Eztabaida politiko eta ideologikoak bultzatuko dituen espazio fisiko zein bitarteko komunikatiboak eraikitzeko helburuarekin sortu dute», azaldu dute brigadistek. Bertako kideen esanetan, «sozialismoaren bidea aberastuko duen eztabaida sortzea» dute xede nagusi. Jadanik hitzaldiak, bilerak, ekitaldiak, musika emanaldiak... antolatu dituzte ekintzaileek lehen tailer bat zegoen tokian.

Argentinako ATE sindikatuko barne hauteskundeetako kanpaina amaierako ekitaldian parte hartu zuten euskal brigadistek. ASKAPENA

Bigarren hitzordua SUATT taxilarien sindikatuko egoitzan izan zuten. Bertan Norma Morroni eta Irma Leites ezagutu zituzten, hurrenez hurren Fernando Morroni euskal errefuxiatuen kanporaketaren aurkako 1994ko Filtroko manifestazioan eraildako gaztearen ama eta tupamaroekin borrokan aritutako emakumea.

Hain zuzen ere, Irma Leitesekin "El Cerro" izeneko Montevideoko zonaldera hurbildu ziren, Desagertuen Memoriala ezagutzeko. «Diktadura garaian desagertutako militante ezkertiarren izenak biltzen dituen monumentua da. Itsasora begira dago jarrita, atxilotuak, torturatu ondoren, hegazkinetatik bizirik itsasora botatzen zituztela oroitzeko».

Hurrengo egunean Buenos Airesera joan ziren brigadistak. Hain zuzen, mobilizazio egun betean iritsi ziren Argentinako hiriburura: ATE Estatuko Langileen Elkartea sindikatuko barne hauteskundeetako kanpaina amaierako ekitaldia nagusian parte hartu zuten, auzo bateko futbol zelaian. «Argentinan zinez bereziak dira mobilizazio sindikalak: koloretsuak, musikaz beteak...», kontatu dute. Sektore ezberdinetako estatuko langileak elkartzen dituenez ATEk, ekitaldian gremio askotako sindikalistak bildu ziren.

Bestelako mobilizazio batera hurbildu ziren ondoren brigadistak: Buenos Aireseko erdigunean izan ziren Santiago Maldonado gaztearen desagertze eta erailketa salatzeko egindako ekitaldi batean. Maldonado mugimendu anarkistari lotutako 28 urteko artisaua zen. 2017ko abuztuaren 1ean, herri txiki batean maputxeek antolatutako erresistentzia ekitaldi batean desagertu zen, polizia militarrek esku hartu ostean. Gaztearen gorputza ez zen urrira arte agertu.

Manifestazioan salatu zutenez, gaztea atxilotu eta ostean hil egin zuten edo zuzenean erail, oraindik ere ez baita argitu benetan zer gertatu zen. «Ikerketak ez zuen ezer argitu eta hori da egun Argentinak eskatzen duena: ez dadila ikerketa faltsuan itxi», gogoratu dute Askapenako brigadistek.

Giro handiko mobilizazioa aurkitu zuten euskal ordezkariek, jada amaitzear zela heldu baziren ere. «Nola ez, polizia ere inguruan zebilen. Hamar bat motorretan zarata sartzen eta jendea probokatzen ibili ziren». Ikusitakoa eta hurrengo egunetan ikusiko zutena hobeto ulertzeko, hainbat elkarrizketa izan zituzten euskal internazionalistek ATE sindikatuko eta Bigarren Independentzia Deialdia erakundeko ordezkariekin, Argentinako historiaren ardatzak ezagutzea helburu.

Formakuntza politikoa

«Bigarren Independentzia Deialdia koadro politikoen formakuntza beharrei erantzuteko sortu zen. Gazteenek aurreko belaunaldiekin zuten distantziaz ohartuta eta ondorioz herri mugimenduak instituzio eta demokrazia liberalen tranpetan erortzeko arrisku handia zuela jabetuta, jardun iraultzaileetan aritutako kide nagusienei transmisio lana egitea eskatu eta formakuntza politikoari ekin zioten, helburua argi izanda: gazteria antolatu eta dena galduta dagoen sentimenduari aurre egitea», laburbildu dute brigadistek.

Brigadistak, Argentinako herri mugimenduko koadro politikoen formakuntza beharrei erantzutea helburu duen Bigarren Independentzia Deialdia elkarteko kideekin.
ASKAPENA

Aldi berean, brigadistek Euskal Herriko azken gertakarien berri eman zieten argentinarrei. «Eta gauza batean bat egin dugu: gatazka politiko eta sozialen aurreko borrokak ez direla galtzen borrokon arrazoiak, eta, beraz, legitimitatea, ulertu eta defendatzen den bitartean», nabarmendu dute.

Montoneros taldeko kide izandako Luisen bizipenek zirrara eragin zuten brigadisten artean: «Klandestinitatera pasatu zenean bere familiak jasandako errepresioa kontatu zigun, gidaritza politikoari heldu behar izatean sentitu zuena bere burua ekintzailetzat izanik, hainbat kidek taldea desegindakoan agertutako damua eta egindako salaketak ikustean pentsatu zuena...».

Brigadistek ez zituzten soilik Argentina eta Uruguaiko borrokak ezagutu. Latinoamerikako preso politikoen aldeko ekimenen berri ere izan zuten. Zehazki, preso politiko ohi baten eskutik. Perukoa. «Guretzat ezezaguna den arren, Pe-

BOLIVIAKO BORROKAK ETA ERRONKAK

Bolivian izandako Askapenako brigadak Independentziaren Eguneko kalejirak eta erakustaldiak ezagutu zituen herrialdean egindako lehen orduetan. Iritzi kritikoak jaso zituzten, baina baita harro sentitzeko moduko aurrerapenak azaldu zizkieten militanteen testigantzak ere, hezkuntza arlokoak adibidez. El Alto auzoan feminismo komunitarioan diharduen emakume baten istorioa azaltzen dute brigadistek euren kronikan. Borrokaz eta emozioz betetako historia. Hauteskunde kanpainaren lekuko ere izan ziren, Columa Sur gazte erakundearen eskutik. Eta horrela ezagutu zuten Adriana Salvatierra MAS-IPSP mugimenduko kidea eta Boliviako Senatuko presidentea. Evo Morales presidenteak parte hartu zuen ekitaldi politiko batean ere izan ziren brigadistak; aldaketa prozesuaren eskutik lortutako aurrerapenez gain, datozen erronkei buruz ere aritu zen presidentea.

OLP Herriaren Erakunde Askeak Argentinako auzo eta herrietan martxan jarritako ekimenak, topagune komunitarioak, eztabaidaguneak... bertatik bertara ezagutu dituzte brigadistek. ASKAPENA

run 80ko hamarkadatik hona ehunka atxilotu, fusilatu, torturatu... izan dira. Egun 250 preso politiko dituzte. Preso horien egoera euskal preso politikoen antzekoa da, ez baitzaie preso politiko izaera onartzen. 1986an abiatu zuten preso politiko izaera onartzeko aldarrikapena eta, Estatuarekin negoziazioak egin behar zituzten egunean, 300 militante hil zituzten», azaldu dute brigadistek. Egoera ez da hobetu ordutik. «Gaur egun preso daudenei epaiketa berriak egiten dizkiete eta zigorrak batu. Batzuk bi edo hiru zigor dituzte pilatuta».

Perun zein Latinoamerikako beste herrialde batzuetan preso politikoen inguruan egiten den lana ezagutu zuten brigadistek. «2018an zenbait herri zapaldutako preso politikoen aldeko koordinakunde bat sortu zuten eta gaur egun Kolonbia, Txile, Peru, Argentina, Turkia eta Mexikoko kideak daude bertan. Munduko Preso Politiko Iraultzaileen Askatasunerako Nazioarteko Elkartasun Koordinakundea du izena», azaldu dute.

Ibilbide luzeagoa du OLP Herriaren Erakunde Askeak Argentinako taldeak. Buenos Aires iparrean 1980an sortua, urteek aurrera egin ahala, hirian zehar zabaldu da. OLPko kideen eskutik brigadistek ezagutu zutenez, 2003an Nestor Kichner presidentetzara iristean, hainbat erakunde mahai batera deitu zituen, antolakunde herritar guztiak kichnerismoaren barruan sartzeko asmoz. «OLPk ez zuen egitasmoa babestu eta kanpoan gelditu zen. Ondorioz, indarra galdu zuen eta ia desagertzekotan ere izan zen urte batzuetan zehar», azaldu dute brigadistek. Arazoak arazo, «gazte batzuk hezkuntzari lotutako Simon Bolivar erakundean militatzen hasi ziren eta, poliki-poliki, kide nagusiagoekin batera, OLP berrantolatzen hasi ziren, berriro ere indarra lortuz». Horren erakusle, Buenos Airesetik harago, Mendoza, Cordoba eta San Juan bezalako hirietara ere zabaldu dute egun euren jarduna.

«OLP Herriaren Erakunde Askeak egiten duen lana zertan datzan ikusi dugu: auzo eta herriek, euren beharrei so eginez, komunitatean benetako alternatibak eraikitzea»

«Egiaztatu ahal izan dugu formakuntza politiko handia dutela. Praktikara eramaten dutena argudiatu eta filosofia berdin baten baitan kokatzeko gaitasun handia dute»

Emakumeak, nagusi

Berrantolaketa prozesuan OLPko kideak gauza batez jabetu ziren: gizonak ziren historikoki antolakunde ezberdinetako arduradun nagusiak izandako gehienak, nahiz eta egunerokoan auzoetan emakumeak ziren lanean zihardutenak. Egoerari buelta eman nahian, OLPk emakumearen figurari garrantzi handia ematen dio egun. «Formakuntza espazio ez mistoak sortu dituzte. Kideetako batek azpimarratu du espazio horiekiko errespetua handia dela eta posible dela pixkanaka aldaketa gauzatu eta emakumeek gero eta ardura gehiago izatea».

OLPko hiru ardatz nagusiak formakuntza, lana eta mobilizazioa dira. «Egiaztatu ahal izan dugu bertako kide guztiek formakuntza politiko handia dutela. Praktikara eramaten dutena argudiatu eta filosofia berdin baten baitan kokatzeko gaitasun handia dute».

Gaur egungo Argentinako egoera larriak, langabezia tasa ikaragarria da, milaka familia diru sarrerarik gabe utzi eta pobreziara kondenatu ditu. «Macriren Gobernuarekin izugarri okertu da egoera. Pentsa, Gobernuak Larritasun Sozialeko Legea ere sartu behar izan du indarrean. Horrekin diru sarrera nahikorik ez dutenei laguntza osagarri bat ematen diete. Hori bai, OLPk laguntza hori gogor salatzen du, ez baita diru sarrera osagarri bat: familia askorentzat duten diru sarrera bakarra da. Egoera ikusita, argi dute ezin direla horrelako mekanismoez fidatu eta herriari boterea eta autonomia emango dizkion eredu

bat sortzea guztiz ezinbestekoa dela», azaldu dute euskal brigadistek.

Askapenako kideek bertatik bertara ikusi ahal izan dute zertan datzan OLPren lana: «auzo eta herriek, euren beharrei so eginez, komunitatean benetako alternatibak eraikitzea». Eta ekimen txikietatik hasten dira, *merendero* edo auzotarren topagune izango diren espazioak sortzetik kasu, azkenean kooperatibak sortzeraino ere iritsiz.

«*Merendero* izeneko espazioetan estatuak ematen dituen laguntzen barnean banatutako janari-poltsak eta botikak bezalako oinarrizko produktuak biltzen dituzte, ostean egoera larrienean dauden auzokideei banatzeko. Espaziook herritarren topaleku eta eztabaidagune bihurtuta, bestelako proiektuak martxan jartzeko aukera sortzen da: haur eta gazteentzako laguntza klaseak, txikienak zaintzeko gunea, serigrafia tailerrak, arropa josteko guneak, baratzeak...», azaldu dute brigadistek.

«Denborarekin martxan jarritako ekimen asko kooperatiba bihurtu eta auzokideentzat lan eta diru iturri bilakatu dira. Horrekin, OLPk defendatzen duen bezala, etorkizuna modu autonomoan aurrera ateratzeko modua sortzen du herriak berak, pixkanaka-pixkanaka estatu, enpresa eta patroiekiko menpekotasuna ezabatzea lortuz», azaldu dute Askapeneko kideek. «Gainera, herria boteretzeko bidean batak besteari egiten dakiena erakusten dio: josten, zurgintzako lanak, eraikuntzakoak... Tresna berriak ematen dizkiote elkarri».

Horiek horrela, Askapenako ordezkariek hainbat egun eman zituzten OLPk martxan jarritako egitasmo zehatzak ezagutzen. Lehenik eta behin, kooperatiba bat bisitatu zuten Buenos Aireseko probintziako Maximo Paz hiriko San Eduardo auzoan. «Hirian tokirik ez zutenek sortu zuten auzoa, lurrak okupatuz, beraiek dioten bezala, *tierra tomada* deitutako ekimen baten bidez».

Cordoban, Villa La Tela auzoa ezagutu zuten euskal brigadistek. «Etxe txikiak, asfaltorik gabeko kaleak, auto eta komertziorik gabeko inguruak... aurkitu genituen». Bada, etxe horietako batean, sortu berri den OLPko talde baten asanbladaren lekuko izan ziren iristean.

Hilabete eskas zela martxan jarritako egitasmoa ezagutu zuten. Emakumeak ziren ekintzaile gehienak. «Behetik hasita eta parte hartzea sustatuz taldearen oinarriak definitu zituzten: zertarako elkartzen diren, delegatuen profila eta zereginak zeintzuk izango ziren, delegatuak nola aukeratu... Hasteko, Creando Sueños *merendero*-a zabaldu zuten», azaldu dute brigadistek.

Ondoren bisitatu zuten auzoan, Villa Adelan, esperientzia handiagoko egitasmoa batekin egin zuten topo. Bertako *merendero*-a duela urte eta erdi jarri zuten abian eta askoz ekimen gehiago dituzte martxan. «Serigrafia tailerra, haur eta gazteentzako laguntza klaseak, karate klaseak kooperatibako haurrentzat... Bereziki deigarria egin zitzaigun martxan jarri nahi duten ekimen bat: kooperatibako kide den ile-apaintzaile batek beste kide batzuei bere jardunaren irakatsiko die eta ikastaroa erakunde ofizial batek titulu gisa onartzea dute xede».

Hegoaldeko Langile Antolatuak taldeko kideekin izan zuen brigadak hurrengo kontaktua. Lurrari lotutako egitasmoa da. «Lehenengo sektoreak indar handia duen Argentina bezalako herrialde batean, lurralde fisikoan boterea izateak aberatsenen aurka egiteko modua eskaintzen duela uste dute», azaldu dute Askapenako kideek.

Zehazki, bi proiektu ezagutu zituzten euskal brigadistek: Angelleniko ortua eta Piedras Blancaseko oilategia. «Angellinin astean hiru aldiz batzen dira proiektuko kide diren auzokideak. Ortu eder bat jarri dute martxan eta, batez ere, ekimenean parte hartzen dutenen artean banatzen dituzte baratzeko produktuak. Proiektu honetan ere emakumeak dira nagusi eta erabiltzen duten materiala gobernutik lortzen dute. Euren hurrengo proiektua tantaka bidezko ureztatze sistema ezartzea da», kontatu dute brigadistek.

Piedras Blancasekoa, aldiz, ibilbide luzeko proiektua da. «Gallo Rojo deitzen den kooperatiba eratu dute bertan: hamabost familiek hamar oilategi kudeatzen dituzte. Produktuak inguruko merkatuetan saltzen dituzte, salmenta kopuru garrantzitsuak lortuz. Euren hurrengo erronkak bi dira: euri ura jasotzea eraiki dituzten putzuak baliatuta eta oiloei jaten emateko euren pentsu propioa egin eta saldu ahal izatea».

Azkenik, eraikuntza lanetarako sortutako kooperatiba baten gorabeherak ezagutu zituzten brigadistek. «Azken helburua gobernuaren proiektu handiak horrelako kooperatiben esku geratzea da, horrela herriko aberastasuna berriro ere herrian gera dadin», laburbildu dute brigadistek kooperatibako kideen filosofia.

Brigadistak, OLP Herriaren Erakunde Askeak erakundeko ordezkariekin solasaldia izan ondoren.
ASKAPENA

{ analisia } **Dabid LAZKANOITURBURU**

Greta eta klima

Oihartzun handia izan du asteon Greta Thunbergek klimaren krisiaren inguruan Nazio Batuen Erakundearen gailurrean eman duen hitzaldiak. Sekulako errieta bota zien gazte suediarrak bertan bildutako politikariei. New Yorken baino Ozeano Atlantikoaren beste aldean klasean egon behar zuela gogoratu ondoren, honakoa egotzi zien munduko 60 bat agintariri, gehienak europarrak: «Nola ausartzen zarete hona etorri eta nahikoa egiten ari zaretela esaten? Entzuten gaituzuela diozue, egoeraren larritasunaz jabetzen zaretela, baina egoera benetan ulertuko bazenukete, ez zineten hor geratuko, ezer egin gabe».

Ez zaio arrazoirik falta. Izan ere, orain arte munduko hainbat gobernuk sinatu dituzten akordioetan –Parisko Ituna barne– jasotako konpromisoak ez betetzeaz gain, aldaketa klimatikoa areagotzen duten emisioetan gora egin dute etengabe estatu gehienek.

> Nazio Batuetan egin duen agerraldiaren ostean ugaldu egin dira Greta Thurnberg klima larrialdiaren aurkako borrokan ikur den gaztearen gaineko laudorio eta kritikak

Ikurra

Urte sabatikoa hartu eta abuztuan belaontzian zeharkatu zuen Atlantikoa Thunbergek, bere bidaiaren arrasto karbonikoa gutxitzeko. New Yorkeko nazioarteko ekitaldiarekin amaitu den bidaiari esker, indartu egin da Thunbergen irudia klimak bizi duen krisi gordinaren aurkako borrokaren ikur bezala. Irudi bezala eta baita ahots gisa ere, belaunaldi berriek beren etorkizunari buruz duten kezkari boza jarri diolako.

Thunbergek duela urtebete pasa, 2018ko abuztuaren 20an, ekin zion bere borrokari. Egun hartan egin zuen Suediako Parlamentuaren aurrean lehen «klimaren aldeko ikasle greba». Orduan, bere irudia, bizkarretik behera erortzen zaizkion ilekorda luze eta guzti, munduko aldizkari nagusien azaletan agertu zen, "Time Magazine"-tik "Vogue"-ra. «Suediak Parisko Itunarekin bat egin arte hemen jarraituko dut», ohartarazi zuen telebistan iazko urte bukaeran. Ordutik hona, bere izenak Eskandinaviako herrialdeko mugak gainditu ditu eta aurten Bakearen Nobel saria eskuratzeko hautagaien artean ere egon da.

Thunbergen borroka, "Fridays For Future" izenpean, mundu osora hedatu da. Suediatik Australiara, Europatik Ameriketara, gaztedia eta batez ere ikasleak mugiaraztea lortu du ostiralero.

Hala ere, badago Thunbergen ibilbidea eta nolabaiteko lidergoa kritikatu duenik, baita ere Nazio Batuetako Erakundean izan duen agerraldiaren ondoren. Donald Trump AEBetako presidenteak ohikoa duen ironia sinplista erabili du Twitterren. Greta Thunbergek negar malkotan esan zuenez «nire ametsak eta haurtzaroa lapurtu dizkidazue zuen hitz hutsekin», Etxe Zuriko buruak «etorkizun benetan oparoa nahi duen gaztetxo oso alaia dirudi, ikusteko oso polita», idatzi du, Thunbergen haserre aurpegia azaltzen duen irudia itsatsita.

«Gaztetxoa» ez da isilik geratu eta Trumpen hitzak erabili ditu Thunbergek Twitterren bere azalpen pertsonala emateko. «Etorkizun benetan oparoa nahi duen gaztetxo oso alaia». Bere gaztetasuna zalantzak hauspotzeko aitzakia moduan erabiltzen dutenentzat ere badu erantzuna Thunbergek, pasa den uztailean Parisera egin zuen bisitan gogoratu zuen bezala. «Zuek ez zaudete inolaz ere gu entzutera behartuta, izan ere, umeak besterik ez gara», erantzun zien ironikoki gazteek emergentzia klimatikoaren aurkako borrokaren buru izateko zilegitasunik ez dutela diotenei. Gazteagoa ematen duen arren, 16 urte ditu jada Thunbergek, kontzientzia kritikoa izateko adina bai behintzat.

Izaera

Ikono baten genesi, gazteen ikur, Greta Thunbergek Moloch klimatikoari aurre egiteko belaunaldi baten grina bultzatu duen arren, mespretxua ere jaso du, «eko-ebangelismoaren txotxongilotzat» duten sektore negazionisten artean batez ere. Michael Knowles Fox News AEBetako telebista kate ultrakontserbadoreko komentaristak argi du «klima histerian erori den gaixo mental baten aurrean» gaudela. Ez da bakarra. Beste batzuen ustez «utopia hiltzaileek autismoa duen nerabe baten nerbioak hautsi dituzte».

Thunbergi 12 urterekin diagnostikatu zioten Asperger sindromea. Berak azaldu duenez, «nire buruak era pixka bat desberdinean funtzionatzen

Goiko irudian, Greta Thurnbergen horma irudia Istanbuleko kale batean. Behekoan, Thurnberg bera eta beste gazte batzuk Nazio Batuetako Erakundeak asteon bertan egindako klimaren gailurrean. AFP

du eta mundua beste ikuspegi batetik ikusten dut, laburbiltzeko, zuri-beltzean. Oso zuzena naiz, eta gauzak diren bezala esaten ditut. Hori bai, zeozer egitea erabakitzen dudanean, ondo egiten dut». Bere izaera tematia duen sindromearen ondorio dela zehaztu du, erakusten duen indarra beste ondorio bat den moduan.

Azkarra, oso

Eskolan, «8 edo 9 urte» zituenean, hasi zen klimaren inguruko gaiekin interesatzen. «Nire irakasleek esan zidaten papera aurreztu eta argiak itzali behar nituela. Zergatik galdetu nienean, aldaketa klimatikoa bezala ezagutzen zen zerbait zegoela erantzun zidaten». Orduan utzi zion haragia eta esnea jateari eta produktu berriak erosteari, «behar-beharrezkoak ezik».

Gretaren familia haurra depresioan erori zenean jabetu zen auziak berarentzat zuen garrantziaz: krisi klimatikoaz larrituta, 11 urterekin gaixotu egin zen eta jateari, eskolara joateari eta hitz egiteri utzi zion, aitak gogoratu duenez. Orduan diagnostikatu zioten Asperger sindromea.

Thunberg oso-oso azkarra da, sindromea duten gehienen antzera. Munduan zehar bidaiatzen ari dela eta, eskolara joateari utzi behar izan dio aurten eta urruneko ikastaroa jarraitu du. Hala ere, izugarrizko notak atera ditu. Bere aurkariek, ordea, erabiltzen dituen hitzak kritikatzen dituzte. Zentzuzko diskurtso bat egin beharrean krisi klimatikoaren larritasuna areagotzea egozten diote eta urtarrilean Davosko Forumean esan zituenak ekartzen dituzte gogora: «Zuek ikaratzea nahi dut, nik egunero sentitzen dudan beldurra senti dezazuen».

Thunbergek aberastu egin ditu, baina, bere argudioak azken hilabeteetan. «Egin iezaiozue kasu zientzialariei», eskatu zuen aurreko astean Washingtonen, AEBetako Kongresuan.

Gehienetan bere hitzak «zuzenegiak» direla gazteak berak onartzen badu ere, bere izaera ulertzeko ez da Thunbergek duen Asperger sindromea soilik kontuan izan behar. Thunberg bezalako pertsonaiak ulertzea zaila da Suediatik kanpo. «Azken hamarkadotan Suediako hezkuntza programak izaera kritikoa bultzatzen du, ezagutza hutsaren gainetik», dio Katarina Baarlingek, Uppsalako Unibertsitateko politologoak.

Severn Cullis-Suzuki biologo kanadarrak argi du Thunbergi «indartsua delako» egiten zaizkiola hain kritika gogorrak. «Iraultzara deitzen du, eta horregatik isilarazi nahi dute», gaineratu du 1992ko Rioko gailurrean 12 urte zituen biologoak.

Azken asteetan beste esparru ideologiko batetik iritsi zaizkio kritikak, «kapitalismo berdearen txotxongiloa» dela diotenen aldetik zehazki. Bere kanpaina soilik mediatikoa dela dioenik ere bada, eta Barack Obamak eta aita santuak gaztea hartzean egin dizkioten laudorioak aipatu dituzte. Dudarik ez klima larrialdiaren aurkakoa kanpaina mediatikoa dela, baina egungo ia borroka guztiak dira horrelakoak. Badirudi ere garaiotako antsietate existentzial eta arazo larriek bat eginda, Thunbergen hitzak, irudia eta izaera guztiz aproposak direla jendea mugiarazteko, argi dago-eta gazteak eta bere borrokak mundua astindu dutela milioika nerabe kalera ateraz, bere ausardia hauskorrarekin eta bere ahots gazteak islatzen duen grinarekin. Hori da bere aurkariek jasan ezin dutena.

Eta, gainera, ez dago bakarrik. Greta asko daude munduan: *Lilly* (Ralyn Satidtanasar, 12 urte) Thailandian, plastikoaren aurkako gerran; Leah Namugerwa ugandarra (15 urte); Maria Jose Bejarano de Oliveira, 18 urteko indigena; Artemisa Barbosa Ribeiro, 17 urteko Xakriaba herriko gaztea, Thunbergekin izan dena AEBetan, Militzia Lizbeth Flaco Suira panamarra....

Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Baldintzatu, ahalbideratu



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

Mende erdia hutsik daraman baserria berritzen ari gatzaizkie lagun biri, eta gauza batek eman zion atentzioa lerrook idazten ari den kalekume peto-peto honi: logelek. Jakina da bizitoki bezain lantoki izan dela historikoki baserria eta lotarako espazioek, proportzioz, gaur egun baino garrantzia dezente gutxiago izan dutela. Kasu honetan, logelak hegoaldera jotzen duen 50 metro karratuko pieza luze batean antolatzen dira. Sukaldetik sartzen da lehenengo logelara eta errenkadan datoz besteak: bigarrena lehenaren ondotik, hirugarrena bigarrenaren atzetik eta laugarrena gibelean, ohe bat edo bi gela bakoitzeko eta korridorerik ez. Alegia, laugarren logelara joan behar baduzu beste hirurak zeharkatu behar dituzula.

Denbora aurrera doa eta pixkanaka arautu egin ditugu etxebizitza batek bete behar dituen bizigarritasun-baldintzak, infraetxeak ekiditeko. Betekizun horiek erreferentzia egiten diete espazioen dimentsioei, instalazioei, irisgarritasunari, egiturari, sute-kasuetako segurtasunari, ingurumenaren babesari, energia-aurrezkiari, eta abar luze bati. Izan ere –eta uste nuen hau garbi xamar zegoela baina badirudi ezetz–, diseinuak ez dira neutroak. Diseinuak baldintzatu egiten du, diseinuak ahalbideratu egin dezake. Esaterako, Jose Maria Echarte arkitektoari irakurri diodan moduan, haurrek ez zuten logela propiorik izan XIX. mendera arte, eta horrek eragin zuzena du haien hazkuntzan eta garapenean.

Hau guztia diot Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak berrikusi egingo dituelako antza etxebizitzen bizigarritasun-baldintzak, genero-ikuspegitik besteak beste, eta makilakadak jaso dituelako ezker-eskuin. Ezer gutxi espero daiteke Onda Cero irratiko tertuliakide orojakileengandik – «Estatua gure etxeetan sartuko da!», jada bertan ez balego bezala–, baina harritu nau Clara Campoamor elkarte feministako buruak ikerketa serioen ondorioak «tontakeria» hitzarekin gutxiesteak. Ines Sanchez de Madariaga bezalako adituek errespetu apur bat gehiago merezi dutelakoan nago.

Espazioen antolamenduari dagokionez, dekretu berriaren zirriborroak bi berrikuntza nagusi dakartza. Lehena logela nagusi ez diren logelei dagokie. Haien azalera apur bat handitzea da asmoa, jolaserako eta lanerako leku gehiago izan dezaten; kalitate handiagoko bizitza-espazio bat funtsean, kontuan hartuta gainera gazteak gero eta beranduago emantzipatzen direla. Bigarrena sukaldea da. Orain arte bost metro karratuko azalera minimoa exijitzen zitzaien sukaldeei eta asmoa zazpira igotzea da, bertan bi pertsonek erosoago lan egin dezaten. Jakina, neurri horrek ez ditu bat-batean rol patriarkalak desagerraraziko eta ez du kozinatzen ez duen gizona sukaldera supituki eramango, baina ahalbideratu egin dezake, are gehiago sukaldeak jangelarekin edo egongelarekin lotura fisiko handiagoa badu, proposamenak dioen moduan.

Asmoa, ulertzen dut, espazioaren antolaketaren ikuspegitik ekarpena egitea da. Ez gehiago baina ezta gutxiago ere, diseinuak baldintzatu egiten duelako, diseinuak ahalbideratu egin dezakeelako. •

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Ezkerraren zilbor demontrea, psikoanalisirako kasu serioa

Ezkerraren entsalada oso ozpinduta dabil Espainia aldean. Digestiorako gero eta zailagoa da gertatzen ari den guztia irenstea, eta, eman, goragalea ere ematera iristen da. Ahari-jokoa plaza publikoan: Iglesias eta Errejon, Errejon eta Iglesias, nor baino nor azkarrago, argiago, harroago. Eta ezker espainolaren zilborreko kaparrak (Izquierda Unidakoak, Podemosekoak, Antikapitalistak, Equokoak, PCkoak, Ezker Errepublikanokoak) eta kaparrondoak (Compromis Valentzian, En Marea Galizian, En Comu Podem Katalunian) ari dira bataren edo bestearen alde lerratzen. Eta jakina, potrozorriak ere ez dira falta espektakuluaren erdian.

Podemos omen zen Espainiako politikaren indar berri liluragarria. Europan arazoz lepo galbidean zen ezkerraren iparrizarra izatera deituta zegoen, bere igoerak geldiezinak, meteoritikoak ziren eta arrakastaren aparretan mozkortuek nonahi miresten zuten. Grezian Syrizak sorpresa eman zuen, Britainia Handian Corbynek, fenomeno ezberdinek elkar elikatzen zuten. Zer gertatu da, bada? Zer Podemosen? Zer Errejon eta Iglesiasen artean? Zehazki, ez dakit. Egongo da ezkerrak sortze beretik, bere genetikan tatuatua, duen kainismoa. Baita ezberdintasun txikiei darien nartzisismoa ere. Eta seguru aski, ados egon gintezke guztiok hor nonbait egon den eta dagoen arazoaren funtsa prepolitikoa dela, edo, nahi bada, psikoanalisiaren eremukoa.

Deigarria egin zait ikuskizuna harmailetatik ikusten duten asko nola ari diren txistuka, diren eta ez diren barrabaskeriak nola ari diren esaten, ezpainetatik pozoia dariela. Kaka zahar bat omen da orain Podemos. Komuna, guztiona denaren potentzia bereganatzen saiatu zela, proletalgoaren kultuari heresia eginez indar materialei eta langileriaren autonomiari ez ikusiarena egin ziela, Estatuaren logikan kateatua geratu dela, buruzagi esperientzia gabeak eta harroputz samarrak dituela. Bere osatze prozesua prekarietatean egin, eta, azkenean, munstro deformatu izatera iritsi dela. Eroritako arbolatik ezpalak ateratzen dibertitzen direnek badute non aztarrika egin, badute motiboa dena gaizki aterako dela pentsatu eta asmatzeko.

Baina, inork uste al zuen beste ezker bat eraikitzeko ahaleginak, horrelako apustu batek, bere anbizioagatik, inposiblez eta trabaz beteriko bide bat urratu beharko ez zuenik? Inork uste al zuen egoera lehengoratzea asmo duen operazio indartsu bat ez zela saiatuko horrelako bultzada eraldatzaile bat birxurgatzen? «Normala» ere bada indar sistemikoen erantzuna, kontraerasoa. Gehitu horri protagonisten zenbait ikusmira hertsi eta miseria pertsonal, eta are normalagoa.

> Irakurketa teorikoetan baino, egiazko erradikaltasuna, askotan, bermerik gabeko apustuen gainean eraikitzen da, galtzeko aukera asko dituzten apustuen gainean

Ez nago, inondik inora ere, Podemosek fenix hegaztiarena egingo duela aurreratzen. Ez dut uste. Ez daukat horren gogo ezta fede itsurik ere. Boluntarismo nahasgarria iruditzen zait. Baina bai esan nahi dut, batzuetan, gauzak egiteko desira ausarta irakurketa teorikoak baino urrutirago heltzen dela. Egiazko erradikaltasuna, sarri, bermerik gabeko apustuen gainean eraikitzen dela, galtzeko aukera asko dituzten apustuen gainean. Hasiera-hasieran, bere neurrian, holakohalako zerbait ikusi zuten Podemosen milaka eta milaka anai-arrebek Euskal Herrian. Lilurak aberkide asko eta asko itsutu zituen. Baina beti datoz urak bere bidera. Podemosek Espainia izan duelako beti abiapuntu eta helburu. Eta hori izan du bere kondena. •

herria

BAKARDADEAK GARAITU ZITUENAK

Xabier Izaga Gonzalez

XX. mendearen hasieran milaka euskaldun abiatu ziren Ameriketako Estatu Batuetara etorkizun hobe baten bila, gehienak Nevada, Montana, Idaho eta Kaliforniara. Nevadara joan zen artzain Txomin Malaxetxebarria gizaburuagarra 19 urterekin eta, bertako basamortuan burua galdu ondoren, Estatuko Espetxeko gas ganberan bizia ere galdu zuen 58 urterekin. Txominek bezala herritik urrun bakardadea lanbide izan zuten etorkin guztiak omendu nahi ditu «Bakardadeaz borrokatzen» ikuskizunak.

«Bakardadeaz borrokatzen» ikuskizuneko antzezleak eta musikariak.
Belen URRUTXURTU

Euskal Herria emigrante herria da. XIX. eta XX. mendeetan euskaldun ugari abiatu ziren besteak beste Ameriketara askotariko arrazoiak zirela eta. XX. mendearen hasieran, milaka joan ziren etorkizun hobe baten bila, gehienak Nevada, Montana, Idaho eta Kaliforniara. Baina amets amerikarra garesti ordaindu beharra zegoen, urruntasuna eta bakardadea lanbide hartuz. Batzuk, gutxienez ondo bizitzeko lain diru lortuta, herrira itzuli edo han geratu ziren; beste batzuk, baina, ez ziren inoiz itzuli eta miseria gorrian hil ziren. Txomin Malaxetxebarria izan zen horietako bat. Bat baino ez, baina ehunka, milaka joan ziren berarekin bateratsu. Horiek guztiak omendu nahi ditu "Bakardadeaz borrokatzen" ikuskizunak Txomin Malaxetxeberriaren istorioa kontatuz, antzeztuz.

Maiatzean estreinatu zuten ikuskizuna, Ispasterren. Ondoren, San Pedro bezperan, Lekeition ere eman zuten. Uda ostean, entseguak hasi dituzte atzera berriro eta GAUR8k Jose Antonio Elu, Mikel Lacalle eta Rikardo Gonzalez de Durana taldeko kideekin hitz egiteko aukera izan du, proiektu horren nondik norakoen berri jakiteko.

«Gu ere emigratzaileak izan ginen»

Jose Antonio Elu antzezpenaren zuzendari eta proiektuaren sortzaileak aspaldi irakurri zuen Koldo San Sebastian kazetariaren artikulu bat, Txomin Malaxetxebarriaren bizitzaren berri ematen zuena. Hori buruan, istorio hura jende askorena, Euskal Herritik atzerrira joandako beste lagun askorena izan zitekeela pentsatu zuen. Malaxetxebarria Gizaburuagakoa zen, Ameriketara joandako beste hainbat bezala. Izan ere, Eluk dioenez, joan den mende hasiera hartan Gizaburuagako bizilagunen ia %30 joan ziren AEBetara. Joan eta jan, horretara joaten baitziren.

Ikuskizunarekin, «garai batean gu ere emigratzaileak izan ginela» gogorarazi nahi dute. Emigrazioaren gaineko hausnarketa da, beraz, baina baita maiorazkoaren gainekoa ere, «onerako eta txarrerako. Maiorazkoari esker baserriak eta lurrak banatu gabe jarraitzen zuten mendeetan. Baina oinordeko ez zirenek baserritik alde egin beharra zeukaten etorkizun oparo baten bila. Eta ez zuten amets hori beti betetzen», dio Eluk.

Elu 60ko hamarkadatik musika taldeetan gitarra jotzen ibili izan da, eta ezkondu ondoren jardun musikala Lekeitioko Estudiantinara mugatu zuen. Hala ere, duela urte bi Mikel Lacalle eta Felipe

Zelaietarekin jotzen hasi zen Gasteizko Abetxuku auzoan, De la Casa anaien estudioan. Malaxetxebarriaren istorioa aspaldi irakurri eta haren gaineko kantu bat egin zuen, Bizkaiko Kantu Txapelketan Sortzaileen Saria eraman zuena. Iaz, Abetxukuko taldeak kantu hori prestatu eta zerbait gehiagorako bide izan zitekeela pentsatu zuten. «Rockeroak ez direla inoiz hiltzen –dio Eluk irribarrez–, baina edade honegaz, zer edo zer gehiago eman behar genuela pentsatu genuen, jendeak interes handiagoa edukitzeko. Eta istorio hori beste kantu batzuekin lotuz gero, eta nik baneuzkan beste kantu batzuk eginda, ikuskizun bat egin zitekeela ikusi genuen». Hartara, Ardi Ilun Blues Band izango zen musika taldeari bertsolariak eta dantzariak ere batu zizkioten ikuskizun horretarako.



Joan den mendean ospe handia hartu zuten euskal artzainek AEBetako mendebaldean.

Han ere, euskaldun

Txomin Malaxetxebarria gizaburuagarra 1912an abiatu zen AEBetara, 19 urte baino ez zituela. Hara joan eta ez zen inoiz itzuli. Hainbat urte eman zituen Nevadako basamortuan bakardadea lagun edo, hobeto esateko, etsai, burua galtzen hasi zen arte. Nevadan bizi izan zen eta bertako Estatuko Espetxean hil zuten, gas ganberan.

Busturialdetik eta Lea-Artibaitik jende askok egin zuen urte haietan AEBetarainoko bidea, batez ere barnealdeko jendeak, Eluk dioenez. «Lekeitio itsas portua zenez, hango jendeak bazeukan lana itsasoan, baina baserritarrek itsasoan lan egitea, pentsatu ere ez. Inguruko herrietatik, jende mordoa joan zen. Gipuzkoatik berdin, kostakoak ez, baina barrualdekoak asko, eta Nafarroatik, Lesaka, Etxalar eta inguru horretatik, pilo bat. Garai hartan han, Estatu Batuetako mendebaldean, artzain gehienak ziren euskaldunak. Ez zegoen Iparraldekorik edo Hegoaldekorik. Euskal etxeetan batzen ziren denak, euskal kantuak abesteko, hemengo ohiturak gorde, musean egin... eta ezkondu ere elkarrekin ezkontzen ziren maiz».

Joan zirenei omenaldia

Mikel Lacallek azpimarratzen du beren lana batez ere omenaldi bat dela, hara joan zen jende horri eskainitakoa. «Adierazi nahi dugu batzuetan hura zerbait bukoliko gisa ikusten dugula, amets amerikarra eta abar, baina oso gogorra izan zela argi utzi beharra dago. Eta oraingo etorkinekin lotuta, garai desberdinak diren arren, batzuetan arinkeria handiz hitz egiten dugula, oso ondo bizi direla esanez, eta, gainera, laguntza publikoez baliatzen direla. Islatu nahi dugu, oro har, zer gogorra den beste leku batera joatea, hizkuntza arrotz bat egiten den leku batera, mendira, basamortura...».

Mikel Lacalle, Rikardo Gonzalez de Durana eta Jose Antonio Elu. Endika PORTILLO I FOKU

Ildo beretik mintzo da Rikardo Gonzalez de Durana. Garai hartako istorioak gaur egun ere gertatzen diren antzeko egoerak salatzeko baliagarriak direla nabarmendu du. «Malaxetxebarria 1952. urtean hil zuten gas ganberan, gaur egun AEBetan indarrean dago heriotza zigorra, eta Pablo Ibar heriotza-korridorean egon da luzaroan, eta bera bezala beste asko, jakina. Bakardadea aukeratua denean, onuragarria izan daiteke, baina hala ez denean, hainbat urte igarota ere, benetako dramak gertatzen dira». Orain aspaldi ez dela, Gasteizen bere etxean denbora luzean hilik izandako andrea aurkitu zutela ekarri du gogora. «Txominen garaia eta oraingoa alderatzen baditugu, formak guztiz aldatu direla ikusten dugu, Internet eta teknologia berrien garaia da hau, baina pertsonaren beharrak antzekoak dira,

arazoak berdintsuak: bakardadea, bazterkeria... eta, haien ondorioz, antzeko dramak sortzen dira».

Taldea

Rikardo Gonzalez de Durana eta Felipe Zelaieta dira bertsolariak, protagonista eta narratzailea, hurrenez hurren. Felipe, gainera, gidoiaren egilea da. Dantzariak Lander Arriaga amorotarra eta Eneko Balerdi aiarra dira. Ballet dantzaria, Ane Meabe gaztea da, Lucia Lakarraren eskolakoa. Musikaz Ardi Blues Band arduratzen da: Alberto eta Nando de la Casa anaiek baxua eta teklatuak jotzen dituzte; Alfonso Rojo Gorrik, bateria; Jose Antonio Eluk, gitarra; Mikel Lacallek gitarra eta abestu ere egiten du; eta Felipe Zelaietak, gitarra, txistua eta ahotsa jartzen ditu. Guztira, 14 laguneko taldea, artistak eta teknikariak kontuan izanda. Bi dantzariak dira.

Ardi Ilun Blues Bandek abesten dituen letra gehienak Eluk eginak dira, eta baten batzuk Zelaietak. Musika konponketak, berriz, Alberto eta Nando de la Casa anaiek. «Musikari ezagunak dira, eta oso maila handikoak, besteak beste Ruper Ordorikarekin ibiliak», dio Eluk.

Ikuskizunarekin, «garai batean gu ere emigratzaileak izan ginela» gogorarazi nahi dute. Emigrazioaren gaineko hausnarketa da, beraz, baina baita maiorazkoaren gainekoa ere, «onerako eta txarrerako»

Txomin Malaxetxebarria 19 urterekin abiatu zen AEBetara eta ez zen inoiz itzuli. Hainbat urte eman zituen Nevadako basamortuan, burua galtzen hasi zen arte. 58 urte zituela, Estatuko Espetxeko gas ganberan hil zuten

Antzezpena

Lanaren gai nagusia bakardadea da, eta horrek dakarren desesperazioa. Tarteka umorez tratatuta, baina alde dramatikoa nabarmenduta.

Txomin bakarrik dago, Nevadako basamortu batean, «karro-kanpo»; alegia, «artzain haiek karabana, zaldia eta txakurra alboan egoten ziren», azaldu du Eluk, «eta ardiak. Horrela sei bat hilabete egoten ziren. Eta han zeudela amets egiten zuten». Amets horiek ere agertzen dira ikuskizunean, balletaren bidez. Istorioaren atalen artean, berriz, euskal dantzariak agertzen dira. Txominen heriotza ere ballet dantzariak antzezten du, "Legends of the Fall" filmeko musikarekin, gas ganberako kea eta guzti. Azken kantua Ruper Ordorikaren "Zaindu maite duzun hori" da, halako ondorio baten adierazle: «Txomin Ameriketara joan barik Gizaburuagan geratu izan balitz, haren bizitza bestelakoa izango zen, bere lagunekin, bere herrian», azaldu du Eluk.

Proiektua Abetxukoko Kultura y Natura elkarteari eta Lekeitioko Zehatz Mehatz musika elkarteari esker atera dute aurrera, soinu ekipoa eta beste hainbat baliabide jarri baitituzte euren eskuetan.

Ikuskizuna Bizkaian bezala Euskal Herriko beste edozein bazterretan ere eskaintzeko asmoa dute, eta eurekin harremanetan jarri nahi dutenentzat badute web orri bat: *bakardadeaz.kulturaynatura.com*. Emanaldi bat Gasteizko Aihotz plazan egiteko asmoa dute, oraindik lotu gabe badute ere. Eluk interes berezia du plaza horretan jotzeko, 1978an hantxe jo baitzuen folk talde batekin, Oskorri eta Josu eta Jokinekin batera, plaza gainezka zegoela, eta gogoan du hilabete bat lehenago Iruñean hil zuten German Rodriguezi kantu bat eskaini ziotela. «Ez naiz hilko bertan berriro jo barik», dio Eluk barrez, «hori odolean daukat sartuta».

Ardi Ilun Blues Band, Abetxukuko taldea, Lekeitioko emanaldian.
Belen URRUTXURTU

New York, ozeanoa zeharkatu ondorengo lehenengo geltokia euskal etorkinentzat, mendebaldeko desertuko bakardadera heldu aurretik.

DOMINGO MALAXETXEBARRIA, BAKARDADEAK ETA BIZIMODU LATZAK BURUA GALARAZITAKOA, AMETS AMERIKARRA BETE EZ ZUTENEN ORDEZKARI

Txomin Malaxetxebarriaren bizitzaren bidez euskaldun askoren bidaiak eta bizimodua kontatzen ditu "Bakardadeaz borrokatzen" lanak. AEBetako mendebaldean aurkitzen zituzten baldintza haietan, ez zen gauza bitxia gero eta aldarte garratzagoa izatea.

Joan den mendearen hasieran Euskal Herritik Ameriketara joandako milaka artzainen gaineko datu asko bildu zituen Koldo San Sebastianek, tartean Domingo Malaxetxebarriaren ibilbidearen eta heriotzaren gainekoak. San Sebastianen lana izan da "Bakardadeaz borrokatzen" ikuskizunerako iturri nagusia.

Domingo Malaxetxebarria Gizaburuagako semeak, Euskal Herrian beste askok lez, AEBetara emigratu zuen 1912an, 19 urte zituela. Gizaburuagako 90etik gora gizon-emakumek egin zuten bide bera urte haietan. Urte hartako martxoan New Yorkera iritsi eta handik Nevadara joan zen, Humboldt konderriko Paradisera, hain justu, han bere anaia bi bizi ziren eta. Paradisen, izen hori gorabehera, ez zuen zorionik topatuko, ezta hurrik eman ere. Urteak joan ziren, urte gogorrak basamortu haietan, eta Domingoren anaiak eta beste asko etxera itzuli ziren. Bera ez, ordea, eta bizi baldintza gogor haiek eta denborak izaera aldatu zioten. Gero eta zakarrago, bortitzago eta, ezinbestean, bakartiago bihurtu zuten. Eta burua galtzen joan zen.

1947an, liskar bat izan zuen Nevadako iparraldeko ostatu batean beste euskaldun batekin, Claudio Yturriaga ereñarrarekin, hain zuzen. Domingok buruan jo zuen ereñarra eta ospitalera eraman behar izan zuten. Malaxetxebarriak Poliziari esan zionez, ogia eman ez ziolako egin zion eraso. Urte biko kartzela zigorra eta 5.000 dolarreko kalte-ordaina ezarri zizkioten. Kartzelatik irten baino lehen azterketa psikiatrikoa egin zioten, eta, behin kalean, aldean zentimorik ez zuela eta bere ospe txarra zabalduta, inork ez zuen kontratatu nahi izan. Aurrerantzean alderrai ibili zen konderrian zehar.

1951ean Winnemuccako ospitalean sartu zuten, behartsuen atalera. Handik egun gutxira, ospitaleko bainugela batean itxi eta irteteari uko egin zion, ospitaleko langile batek komuneko atea zabaldu zuen arte. Domingok hoditeriatik askatu zuen burdina batez langilea zauritu eta alde egin zuen. Ihesean, adineko paziente bati hainbat kolpe jo eta hil egin zuen, eta beste horrenbeste egin zuen momentu hartan agertu zen erizain batekin ere. Zenbait lagunek Domingo menderatu ostean, Poliziak atxilo eraman zuen, bere onetik aterata, eta polizia etxeko zelda batera sartu zutenean, guztiz baretu zen, «ezer gertatu izan ez balitz bezala». Lehen aldiz giltzapean egon zenean burutik sano ote zegoen jakiteko egin zioten azterketak ez zuen ezertarako balio izan, ez fiskalaren ustez behintzat, «indar handiko gizona da, ez dago burutik eginda» azpimarratu baitzuen; ezta epaimahaiaren ustez ere, erizainaren heriotzaren errudun jo eta, ondorioz, gas ganberan hiltzera zigortu baitzuten.

Carson Cityn hil zuten, Estatuko Espetxeko «gas ganbera berrian», 1952ko azaroaren 13ko goizeko seietan, norbaitekin hitz egiteari edo nahi bereziren bat asetzeari uko egin ondoren.

IRRITZIA:

Alai
ZUBIMENDI

Jon URBE | FOKU

IKUSMIRA

ALFONBRA GORRIA MEREZI DUTE

Zalantzarik gabe. Gipuzkoako adinekoen egoitzetan eta eguneko zentroetan lan egin dutenei alfonbra gorria jarri beharko genieke, jendarte ondradu baten izenean. Gero eta zaharragoak gara, gero eta zaurgarriagoak, zaintza eta konpainia gero eta beharrezkoagoak ditugu. Aldiz, bakardadea da gora egiten duen bakarra. Berez korapilatuak diren gure bizitzetan zaintzarena gehitu behar, korapilo mingarria eta mingotsa, ondo zaindu nahiaren eta ezinaren arteko soka tenkatua. «Adinekoen egoitzetan eta eguneko zentroetan ondo egoten dira», esaten dute ezina samurtu nahi duten ahotsek. Ahalik ondoen egoten dira bertako zaintzaileek dena ematen dutelako, beti erlojuaren kontrako zaintzan aritu arren. Urteak daramatzate 5.000 langile inguruk beren lan baldintzak hobetzeko borrokan. Eta lan baldintzak hobetzeak zuzenean gure zaharren zaintza hobetzea dakar. Zuzen-zuzenean. Badirudi Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela ikusi nahi, ezta entzun nahi ere. Langileen %95 emakumeak dira eta, esanda bezala, zaintza da beren lana, hainbeste mendetan etxean ezkutatu den lehen lerroko beharra. Horixe, entzunak eta ikusiak izatea ez ezik, alfonbra gorria ere merezi dute. Amagoia Mujika Telleria

ZIENTZIA AZOKA

Gazteen ikerketa zientifikorako grina piztu nahi du Elhuyarrek

DIBULGAZIOA / GAUR8

Elhuyarren Zientzia Azoka ekimenak badu dagoeneko aurtengoa, 2019-2020 ikasturteko edizioa. DBH eta Batxilergoko 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoak tentatu nahi ditu ikerketa zientifikora eta amua honakoa da: taldeak osatu, ikerketa-proiektu bat diseinatu eta garatu. Bidean profesionalen aholkua jasoko dute.

Elhuyarren Zientzia Azokan protagonistak Euskal Herriko gazteak dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 12 eta 18 urte bitartekoak. Finean, haiek garatutako proiektuen azoka da eta ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa barrutik bizitzeko aukera bat izan nahi du. Elhuyarren hitzetan, «zientzia-hezkuntza formalaren osagarri izatea eta oinarrizko eta zeharkako gaitasunak landuz STEAM –Science, Technology, Engineering, Arts and Mathematics– arloetan sakontzea du helburu». Gazteek zientziarekiko eta teknologiarekiko duten interesa eta motibazioa piztu nahi ditu ekimenak eta, bide berean, ekintzailetasuna eta sormena bultzatu.

Zientzia Azokak 12 eta 18 urte bitarteko gazteei ikerketa zientifikoa gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen die.
GAUR8

Parte hartu nahi dutenek, bi eta lau lagunen arteko talde txikiak antolatu behar dituzte eta ikerketa proiektu bat edo proiektu teknologiko bat diseinatu eta garatu. Bide horretan Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile profesionalen aholkua ere jasoko dute unibertsitatera bertara egindako bisita batean.

«Zientzia Azokan parte hartuz sariak gazteentzat bizipen bihurtzen dira, batetik ikertzailearekin harremana izan eta urtean zehar proiektua bera garatzeko harremana dutelako eta, bestetik, Bilboko azokan edota Europako beste hainbat azokatan parte hartzeko aukera izan dezaketelako. Era berean, formazioa edo bekak jasotzeko modua izan dezakete eta zentro teknologikoren baterako bisita tutorizatua ere eska dezakete», nabarmendu dute Elhuyarretik.

Bizipen aberasgarria

Bultzatzaileek nabarmendu dutenez, Zientzia Azoka ez da lehiaketa bat, «elkarlanean oinarritutako bizipen aberasgarri bat baizik». Beraz, ez da irabazle edo galtzailerik, baina zehaztutako irizpideak ondoen betetzen dituzten lanak nabarmendu egingo dira. Sariek zientzia eskaintzen dute, aukeratuek ikerketa-zentroetara eta beste azoka batzuetara joateko aukera izango baitute.

Estatuko eta Europako zientzia-azoken hitzarmenei esker, Elhuyar Zientzia Azokan parte hartzen dutenek beste zientzia azoka batean parte hartzeko aukera izango dute: Exporecerca, Galiciencia, Mostra Nacional de Ciência de Portugal, Milango "I giovani e le scienze" eta MILSET.

Era berean, kategoria bakoitzeko bina talde ere aukeratuko dituzte Tecnalia, IK4, Neiker-Tecnalia, CFM eta CIC nanoGUNE ikerketa zentroetan, besteren artean, bi eguneko egonaldiak egiteko. «Bi egunotan ikertzaileak eta haien lanak ezagutzeko aukera izango dute gazteek, baita haiekin lan pixka bat egiteko ere».

Museoetarako eta interpretazio-zentroetarako sarrerak ere banatuko dituzte, lagunartean edo kuadrillan joan ahal izateko eta gazteek zientzia aisialdiarekin lotzeko. Azkenik, Komunikazioaren saria irabazten duen taldeak Elhuyarren egonaldia egingo du, «zientziaren komunikazioan egiten duen lana gertu-gertutik ezagutzeko».

Izen ematea doakoa da eta epea zabalik dago hemen: *zientzia-azoka.elhuyar.eus*.

Gorputzetik

Maider Iantzi Goienetxe

Energetikoki, husteko garaia da iraila. Behar eta nahi ez ditugunei joaten uztekoa. Hiltzekoa, bizitzeko. Kanporatzekoa, gure barrenean bizipen eta ezaugarri berriei lekua egiteko.

Haizegoak morkotsez bete ditu bideak. Oinak beren zimelean kolorerik ederrenak hartu dituzten hostoen artean sartu ditut. Naturarekin elkartuta, hobeki ikusten ditugu gure argi-ilunak. Eta gure izaerarekin batzen uzten ez diguten oztopoak askatzen has gaitezke.

Sasoi ona da iraila gorputzetik idazten hasteko. Hitzak polit jostetik harago joaten saiatzeko. Arrazoitik, burutik, zentsuratik, autozentsuratik libre. Kiloka zintzotasun eta eskuzabaltasun eskatzen du horrek. Biluzik ibiltzea itsusiak iruditzen zaizkigun gure aldeak erakutsiz. Gure zauriak. Norbaiti inporta al zaizkio?

Irakurle bezala, idazlea bilatzen dut testuetan. Poza hartzen dut lotzean, konpartitzean, identifikatzean. Agian zuk ere bilatuko nauzu ni.

Nire gorputzak zer berri kontatzen ahal dizun asmatu nahian nabil. Gorputz bakoitza bakarra eta berezia izanik, hamaika istorio izanen ditu seguru, baina azalaren hizkuntza ulertzen ikasi behar dut. Arnasari entzuten, atzamarrei teklak edo boligrafoa jarraian zapaltzen uzten, zuzentasunak eta perfekzionismoak pausatu gabe. Zer kontatu nahi du nire gorputzak? Hori ere aditu behar dut, nahi duena egiten duelako... eta nahi duenean. Bere erranak harrapatzeko kale erdian apunteak hartzen ibili naiz, tarteka koadernoa motxilatik atera eta idazten.

Gorputzetik idazteko, sabelari hitza ematen ikasi behar dut oraindik. Hitza sabelari itzultzen. Hitzari sabela ematen. Sabela hitzari bueltatzen. •

Txotxongiloak gara?

Xabier Mikel Errekondo

Hauteskundeak berriro! Azaroaren 10erako agindu ditu Espainiako presidenteak, azkenekoak egin eta sei hilabetera. Laugarren hauteskunde orokorrak azken lau urteotan... Baina ze adar jotze mota da hau! Txotxongiloak gara ala? Ariketarik demokratikoenak omen diren hauetan guztion 560 milioi euro xahutzea larria bada, oraindik eta kezkagarriagoa deritzot herritarrokin egiten duten erabilera arin eta maltzurrari. Alderdiek ditzatela ordain gastu guztiak, eta Kongresua geldirik dagoen bitartean parlamentariak ordainsaririk gabe gera bitez. Nork ez ditu entzun iritziok, bolobolo dabiltza lankideen artean, kalean, tabernan... Bitartean, baina, milioika euro patrikaratzeaz gain, hitz bakoitzeko sudurra luzatzen zaien agintariek txotxongiloak lez gaituzte erabiltzen, eta iruzurraren erantzukizuna herritarren bizkarrera zamatzen dute hautetsontziak *beeeerriro* jarriz. Pedro Sanchez artzainak eta aurrerakoi auto izendatutako alderdiek kataklismora eraman nahi gaituen *España+* otsoari aurre egiteko herritar ardiok *beeeerriro* bozka dezagun erregutuko digute falta diren 44 egunetan guztietan. Betiko leloa lelooi.

Bada, iruzur galant hau behin betirako amaituko bada, nago sistema parlamentarioa bera aldatu egin beharko litzatekeela gehiengo osoak jokoz kanpo utziz. Adibidez, Gobernua gutxienez hiru alderdik osatuz, non alderdi bakoitzak gehienez %35eko ordezkaritza izango zukeen, eta hauteskundeak 4-6 urtera soilik deituz. Hartara legeak halabeharrez Parlamentuaren benetako eztabaidatik, elkar lanetik eta akordioetatik onartuko lirateke. Zailagoa bezain sanoagoa, zalantzarik gabe, baina lobby sozialak eraginkorragoak izango lirateke, eta, aitzitik, lobby ekonomikoak gehixeago sufrituko... •

Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Mario Bungeren mendebetetzean

Ehun urte bete berri ditu Mario Bunge (Buenos Aires, 1919ko irailak 21) fisikari, filosofo eta epistemologo argentinarrak. Askoren aburuz, zientziaren filosofo handienetakoa den honek, filosofo errealista, zientifista, materialista eta sistemista gisa du bere burua, errealismo zientifiko eta filosofia zehatzaren defendatzaile izanik. Bere idazle ibilbide luze eta oparoan ia urte beste liburu idatzi ditu, horietatik ezagunenak "Zientzia, bere metodoa eta bere filosofia" (1960), "Ikerketa zientifikoa" (1967) eta "Filosofia Tratatua"-ren zortzi bolumenak aurkitzen direlarik (1974-1989). Horrez gain, pseudozientzien –psikoanalisia, homeopatia zein ekonomia dominantea– aurka agertu duen postura publikoagatik da ezagun Bunge, baita hamaika korronte filosofikoren kritiko gisa ere –existentzialismoa, fenomenologia, postmodernismoa, hermeneutika edo marxismoa, besteak beste–. Bere ibilbidea La Platako Unibertsitateko fisika teoriko eta filosofia irakasle gisa hasi bazuen ere, Buenos Airesekoan jarraitzeko, 1963an erbesteratu egin zen, eta, AEBetatik eta Alemaniatik pasa ostean, Kanadako McGill Unibertsitateko irakaslea da 1966tik, egun irakasle emeritu izanik logika eta metafisika alorrean.

Bere lanaren erreferentziak erabilitakoa naiz nire zientzia dibulgatzaile ibilbide laburrean, nahiz eta, egiari zor, bere obra ez dudan ezagutzen. Egunotan Bungeri egin elkarrizketa hainbat irakurtzen egon naiz, baita bere aurka idatzi diren kritika batzuk ere. Ez dago zalantzarik bere mendebetetzean zorionak jasotzea merezi duenik eta opari gisa –partekatzen ditudan– bere baieztapen batzuk utziko ditut hemen, bere lanera hurbiltzeko gonbita egitearekin batera: «Filosofia trantze txarra pasatzen ari da, pentsamendu originalik ez dagoelako. Filosofia irakasle gehienak antzinako filosofoak komentatzen aritzen dira, problema berriei aurre egin ordez». «Zientziak eta filosofiak ezin dute elkar joka aritu. Are, eskuz esku egin behar dute aurrera, ikerketa zientifikoak suposizio filosofikoak eta ondorio filosofikoak baititu». «Zientziari beldur izan dio beti eskumak, eta egun baita ezkerrak ere». « Zientzialariek kolegentzat idazten dute, eta ez herriarentzat. Zientzialariek dibulgazioa ere egin beharko lukete, eta zientzia kazetariek informatu egin beharko lukete idatzi aurretik».

Mario Bunge fisikari eta filosofo argentinarrak ehun urte bete berri ditu.

Azken hori, bestela ezin zenez, nire egiten dut, Bungerentzat ziur aski pseudozientzalari soil bat naizen honek. Marxista bezala, dialektikari egiten dion kritika aztertzeko tartetxoa hartu dut eta ezin naiz Bungerekin bat etorri, ez zientzialari, ez eta batez ere, militante gisa. Zer esan egiaz eta mundu hobe baten bidean egin behar denaz Gudari Egunaren biharamunean! Izan ere, batera edo bestera, zientzialari gisa esaten ahal dudana da Herri honetan tarte handiagoa eman beharko geniokeela zientziari, arreta handiagoa jarri eta zentralitate handiagoa eman, batez ere estrategia politikoaren alorrean. Horixe gaurkoan nire ekarpena eta agurra euskal zeruan pizturiko izar gorri guztiei! •

herritarrak

{ koadernoa } **Iker Barandiaran**

Oroimena jantzi

Gogoan daukat aspalditxo Juankar Muga zenari (orain "Juankar Sarean" deitu beharko diogu?) egin nion elkarrizketa batean esaten zuela topera bizi izan zituela gaztaroko taberna, rock-and-roll eta ekintzaile garaiak; eta horregatik orain ez zela gai berak bizi izandakoa kontatzeko, hala bizi izanda gogoratzeko zailtasunak zituelako. Ezinbesteko funtzio hori, gertatutakoa kontatzekoa, Pablo Cabeza kazetariak betetzen zuela, zurrunbiloa erdi-erdian bizi gabe, bertan alboan egonda horren guztiaren lekuko fidela izan zelako.

Zurrunbiloen biratan zorabiatzeko aukera egon ohi bada ere –eta halakoak ere bizi izan ditudan arren– gai izan nintzen sasoi batean gertatutako hainbat gauza batu, dokumentatu eta bere testuinguruan gordetzeko. Hala, pilatuta ditut ehunka *flyer*, argazki, anotazio, aldizkari, fanzine, prentsa errekorte, kartel, binilo, CD, maketa eta kamiseta, besteak beste.

Leku desberdinetan sakabanatuta ditut horiek guztiak eta aitak aspalditik esaten zidan beraien etxean ditudanak eramateko edo botatzeko. Era berean, zurrunbilo horietan bizipen asko partekatu genituen lagun batek, batutakoaren jakitun, askotan esaten zidan hori guztia Pablo Cabezari emateko hark hobe gorde eta erabilera eman ziezaion.

Urteak pasatu dira oharkabean eta hara non bizitzak eraman nauen gurasoen etxea sarriago bisitatzera. Hala, modu horretan, izan dut asti apur bat gaur egungo belaunaldiek ezagutu ez dituzten hainbat konturekin topo egiteko, birdeskubritzeko, eta era berean oroimena freskatu dudan heinean ospatu dut bizi izan genuen guztia, eta gauden bezala, ondo esango nuke, aurretik bizitzeko dugun guztia ere.

Batutako guztiaren artean bitxia iruditu zait gure garaian musika taldeen eta garaiko aldarrikapenen kamisetak eskuratu eta janzteko genuen ohitura zabaldua; eta baita ere arropa horien tamaina handia!!!

Horregatik, bilaketa horretan topo egin dut dozenaka oroimen batzen dituzten elastiko bakanekin.

Horietako bakoitzak testuinguru bat dauka, istorio bat edo gehiago, usain bat eta bizipen bat gutxienez. Hori gogora ekartzeaz gain, gure gaztaroaren oinarri izan ziren Arrasateko bi gaztetxeen historia paraleloak daude: musika, autogestioa, ekintzailetasuna eta azken finean probatuz eta arakatuz bizitzari zukua ateratzeko ahalegina luzaroan behintzat izan genuena. Musika taldeek ez bezala, ekimen autogestionatuek –garai batekoek behintzat– ez zuten nork jaso haien historia, haien gorabeherak, lorpenak eta akatsak. Badakizue, guztiona den heinean aldi berean ez da inorena; eta konturatu orduko, horren kontzientzia hartu bitartean, beranduegi izan daiteke gertatutakoa jasotzeko eta gerorako gordetzeko.

Hortaz, entretenimendu gisa, eta batu eta pilatutakoari etekin pixka bat ateratzeko besterik ez bada ere,

Batutako guztiaren artean bitxia iruditu zait gure garaian musika taldeen eta garaiko aldarrikapenen kamisetak eskuratu eta janzteko genuen ohitura zabaldua; eta baita ere arropa horien tamaina handia!!!

kamiseta bakoitzeko testu labur bana idazten dihardut Twitterren *#kontamisetak* eta *#kamitales* hashtag edo traolak erabilita. Hainbat arrasatear eta bestelako zalek eskertu dute burutazioa, gure memoria historikoaren eta bizipenen parte ere badirelako; kontuok ezagutzen ez zituztenetako batzuek horri esker gure iraganari buruz gehiago ezagutzen ari direlako; eta hainbatek, oroimen ugari berpiztu dizkietelako.

Bizipenek bultzatutako burutazioetatik harago ez doaz; informazio eta bizipenen uztarketatik edaten dute. Baina hainbat helburu betetzen dituzte eta horietako bat, hemen ere, errelatoa guk jaso eta kontatzea da. •

«Europako azken tribu matrilineala gara»

MARI CARMEN BASTERRETXEA

ANTROPOLOGOA

Hezkuntzan dabil lanean eta Antropologian doktorea da. Hamarkadak daramatza matrilinealtasunaren arrastoen atzetik, Euskal Herria jatorrian kultura matrilineala zela oso garbi baitauka.

Amagoia Mujika Telleria

Zorroagako unibertsitatean ikasle zela, 80ko hamarkadan, pasilloetan ikusten zuen Julio Caro Baroja. Jendartean matrilinealtasunaren inguruko eztabaida piztuta zegoen ordurako eta bigarren mailako ikasle gazte hark jakin min handia zuen gaiarekin. Hartara, Caro Barojarengana hurbildu eta bere klaseetara entzule moduan joateko baimena eskatu zion. Geroztik, kultura matrilinealaren ikerketan dabil, oso garbi baitauka Euskal Herria kultura matrilineala dela.

Hamabost urteko ikerketa lanaren emaitza da, hain justu, "Euskal Herria, kultura matrilineala" izeneko liburua. Bertan, lau mila urte atzera egin eta euskal jendartearen antolaketa soziala, sinismenak eta errituak zertan ziren agertzen du Basterretxeak. Nondik gatozen jakin, nora joan nahi dugun erabakitzeko.

Deskribatzen duen jendarte matrilinealean, gizonen eta emakumeen arteko oreka eta lurrarekiko lotura eta errespetua dira zutabe nagusiak. Antropologoak garbi dauka: «Patriarkatua kultura matrilineala zapaltzen ari da modu kontziente batean eta gu Europako azken tribu matrilineala gara».

Zer da matrilinealtasuna? Patriarkatuaren parean jartzeko joera dago eta ez dira parekoak, ezta?

Gure gizartea bere jatorrian amaren aldetik sortutakoa da. Zalantzarik gabe, Ortiz Osesek, Jose Miguel Barandiaranek eta Julio Caro Barojak ekarpen handiak egin zituzten bereziki Mariri, etxekoandreari, eta euskal kosmologiari buruz. Aditu horien ekarpenek adierazten digute euskaldunek beste jatorri bat zutela, ez zena patriarkala, eta euskaldunen kultura ez zela kultura espainiarra. Baina aditu horiek ez ziren konturatu senide egitura matrilinealak zerbait gehiago adierazten zuela, gizarte bat eraiki zuela. Bertan natura zen erreferentea, taldearen elkarbizitza berdintasunean kudeatzen zen eta oreka lortu zuten gizonen eta emakumeen artean. Hartara, gizonek eta emakumeek botere aginte antzekoa zuten begirunean oinarrituta.

Matriarkatuaren definizioan dago gakoa. Oker gaude ulertzen badugu matriarkatuan emakumeak duela botere osoa eta agintea gizartean, emakumea gizon patriarkalaren lekuan jartzen baitugu. Definizio horrek gizarte patriarkalaren eragina du.

Baina hori guztia hausteko eta hankaz gora jartzeko indar handia egin zuten kolonizazio prozesua martxan jarri zutenek. Eta oraindik prozesu hori ez da amaitu. Gure izatearen eta kulturaren arrasto guztiak ezabatuak direnean, orduan esango dut kolonizatuak gaudela. Bitartean, kolonizazio prozesuan gaudela esaten dut. Horregatik garrantzitsua da eustea, geratzen zaigun gutxi horri eustea.

Matrilinealtasuna orekan oinarritua dago eta naturarekin harreman estua dauka.

Noski, naturarik gabe ez gara ezer. Gure erreferentzia Mari da, ama lurra. Lurrik eta naturarik gabe ez dago ezer, gure herria beti egon da lurrari estu lotuta, natura errespetatzen jakin du, orekan bizitzen. Gure aurrekoetatik jaso duguna hori da. Beste gauza bat da orain nola bizi garen.

Argazkiak: Gorka RUBIO | FOKU

Liburuan diozunez, herri indigenen sinismenak ama lurraren begirunean ezarririk zeuden eta euren garapen teknologikoa komunitatearen beharretara egokitu zuten. Aldiz, Europako etnozentrismoak bizimodu hori mespretxatu egin zuen. Garapen teknologikoa inposatu egin zioten gizarteari, garaian agintzen zutenen mesedetan.

Bai, horregatik esaten dut herri naturala garela. Europan, paleolitikoan, herriak oreka batean bizi ziren, matrilinealtasunean. Paleolitoaren bukaera inbasio indoeuroparrekin etorri zen. Hor inposatu zen patriarkatua; gizonak izan behar zuen agintaria. Inbasio izugarri gogorra izan zen. Gu gara garai hartatik bizirik dagoen herri bakarra Europan, gure hizkuntzarekin, gizarte matrilineal baten azken arrastoekin... gu gara Europako azken indigenak. Hori batzuek ez dute ulertu nahi.

«Gizarte matrilinealetan natura zen erreferentea, taldearen elkarbizitza berdintasunean kudeatzen zen eta oreka lortu zuten gizonen eta emakumeen artean»

8oko hamarkadan matrilinealtasuna lehen lerrora ekarri zuten Caro Barojak, Barandiaranek eta beste hainbatek. Eta horrek eztabaida sortu zuen.

Konplexua da hori azaltzea, finean egoera politiko eta ideologiko jakina dagoelako eztabaida horren mamian. Gure izatea ezabatu nahi dutenei ez zaie interesatzen gure benetako jatorriaren berri izatea eta horren kontzientzia hartzea.

Nik hamarkadak daramatzat ikertzen, eta horretan jarraitzen dut, eta nire ustez euskaldunon izatearen jatorria amaren taldeko partaidetza da. Hori garbi ikusten da hizkuntzan bertan, euskaran; izeba, osaba, amaginarreba, aitaginarreba, loba... "-ba" bukaera horiek amaren taldeko partaidetza azaltzen dute. Hizkuntzan bertan dagoeneko ikusten da matrilinealtasuna eta senide izenen egituran ez dago inolako zalantzarik.

Egungo senide arteko harremanetan ere ikusten omen dituzu matrilinealtasunaren arrastoak.

Bai, familia askotan egon naiz bertako emakumeen biografiak osatzeko eta haien eguneroko harremanetan oraindik arrasto horiek bizirik daudela ikusi dut. Adibidez, gurasoek alabarekin daukaten harremana. Nahiz eta egun gizarte patriarkal batean bizi, oraindik ikusten dira matrilinealtasunaren arrastoak: alabak gurasoak zaintzen ditu eta, trukean, etxea herentzian jasotzen du. Horren azpian dagoen ideia garbia da: alaba etxearena da.

Orduan, nola uler daiteke maiorazkoa?
Kolonizazio prozesuan sartu behar dugu hori ulertzeko. Maiorazkoa berez ez da gurea, hori Elizaren eskutik etorri zen. Gure gizartera kolonizazio prozesua etorri zenean, XVI. mendean bereziki, Eliza indarrean sartu zen eta Gaztelako Foroak Elizari boterea eman zion kolonizazio hori gidatu zezan. Helburua garbia zen: sistema patriarkala ezartzea. Beraz, senide egitura guztia eta etxeko antolaketa desagerrarazi beharra zegoen. Elizak sartu zuen jabetza pribatuaren dogma, etxea gizonarena zen ideia... Gure jatorrian, berriz, etxea beti amak alabari ematen zion, eta alabak bere alabari. Hori guztia Elizak aldatu egin zuen, kolonizazio prozesuaren baitan. Batzarrak, auzolanak... horiek guztiak ere hankaz gora jarri zituzten. Ordura arte jabetza komunitatearena zen, herriarena, eta Elizak jabetza pribatua bultzatu zuen.

Eliza patriarkatuaren konplize dela esan daiteke beraz?
Eliza patriarkatua da. Elizak boterea eskuratu zuenean, gure ordura arteko bizimodua eta harremantzeko modua ezabatzeko eta aldarazteko, sorginkeria indarrean jarri zuen. Horrela ezarri zuten patriarkatua. Emakumea kulturaren, hizkuntzaren eta gure baloreen transmisore zuzena zen eta hori hautsi beharra zegoen. Lurraldetasuna eta bizimodua, sistema osoa, zapaldu zuen kolonizazioak.

Gure kultura ezin da ulertu lurraldetasunik gabe, dena batera doa. Horregatik, gu espainiarrak izateko, beharrezkoa zen gure bizimodua eta ordura arteko antolaketa modua hankaz gora botatzea. Nola egin hori? Bizimoduaren eta antolaketaren ardatza emakumea zenez, emakumea suntsitu eta beldurtu egin behar zen.

Liburuan diozunez, inkisizioa izan da matrilinealtasunaren kontrako eraso larrienetakoa.
Bai, XVI. mendean hasi eta XIX. mendera arte. Elizak oso ondo zekien zertan ari zen emakume haiek zapaltzen zituenean. Matrilinealtasunaren kontrako eraso bat zen zalantzarik gabe, ordura arteko gizarte eredua desagerrarazi eta haien gizarte eredua, patriarkala, inposatzeko. Sorgina emakumea da, sortzailea, bizitzaren sortzailea eta gizartearen zutabea.

Jendarte matrilinealetan, zer paper du gizonak?
Emakumeak etxeko ekonomia kudeatzen du, etxeari dagokion lurraren ekonomia, etxeko abereena... Etxekoandreak ez du bakarrik lan eta lan egiten, kudeaketa lanak egiten ditu, erabakiak hartzen ditu, eskumen asko dauzka. Eta, gizonak? Gizonak lana egiten du eta etxetik kanpoko egoerei aurre egiten die. Baina etxeko erabakiak, ekonomia kontuak, senideen arteko harremanak... horiek emakumearen esku daude. Eta ingurukoek, bere esanak betetzen eta onartzen dituzte.

Existitzen al da oraindik kultura matrilinealik munduan barna?
Bai, kontinente guztietan dago arrastoren bat. Europan, gu bakarrik. Polinesia aldean, Amazonian, Txinan... Zoritxarrez, patriarkatua bidea irekitzen ari da komunitate horietan ere. Baina oraindik irauten dute gizarte matrilineal horiek.

«XVI. mendean bereziki, Eliza indarrean sartu zen eta Gaztelako Foroak Elizari boterea eman zion kolonizazioa gidatu zezan. Helburua garbia zen: sistema patriarkala ezartzea»

«Alienazio prozesu batean gaude; komunikabideak, unibertsitateak, eskolak... Modu oso anbiguoan espainolak bihurtzeko prozesuan murgilduta daude. Ez badugu ezer egiten, belaunaldi pare batean haien helburua lortuko dute»

Txinako Mosuo herria aipatzen duzu, esaterako.
Herri horretan, senide-harremanei dagokionez, emakumea seme-alabekin bizi da amaren etxean. Etxea, amona edo ama hiltzen denean, alabarentzat izango da. Bestalde, harreman sexualak izateko, emakumeak gauean bere logelako atea irekitzen du. Horrela gizonek badakite emakumearen atean azal daitezkeela. Atean agertzen dena emakumearen gustukoa bada, berarekin emango du gaua. Baina gogoko ez badu, ezetza emango dio. Erabakia emakumearena da eta gizonak hori begirunez onartzen du. Harreman hori gau bakarrekoa edo luzeagoa izan daiteke.

Patriarkatua ondo pentsatutako estrategia da, beraz?
Zalantzarik gabe. Gaur egun kapitalismoarekin eta neoliberalismoarekin lotuta dago, baina aurretik feudalismoarekin, propietate pribatuarekin, matxismoarekin beti...

Deseraiki egin behar dugula esateak zentzu handia dauka beraz. Euskal gizartea jatorrian ez zelako patriarkatuaren gainean eraiki, ezta?
Horrela da. Oraindik martxan den kolonizazio prozesuaren esanetara, Elizak sekulako lana egin du euskal gizartean. Horren ondorioa da gaur egun bizi dugun egoera; matxismoa, autoritatea, zapalkuntza... Niretzako Eliza erakunde gaixo bat da eta horren ondorioak sufritzen ari gara.

Gizarte matrilineala suntsitzeak kaltea ekarri zien emakumeei eta gizonei.

Patriarkatuak emakumeak erasotzen, zapaltzen, jipoitzen eta hiltzen ditu, baina gizonek ere jaso dute beren zigorra; patriarkalak izan behar dute, autoritarioak izan, emakumea zapaldu. Gizarte matrilinealetan orekan bizi ginen gizonak eta emakumeak, komunitatean eta pareko botere banaketarekin. Naturarekin lotura zuzena genuen eta errespetatu egin behar zen. Herria lurraren parte sentitzen zen, ez lurraren gainetik zegoen entitate bat.

Badira gizarte matrilinealak mitoa direla esaten duten ahots kritikoak.

Bai, ahots interesatuak. Zoritxarrez oraindik kolonizazio prozesuan gaude eta batzuek interes handia daukate matrilinealtasuna eta patriarkatua parean jartzeko. Hori espainolek egiten dute, patriarkatua izaten segitzea interesatzen zaielako. Eta emakume batzuk ere sartzen dira jokoan.

Haien esanean matrilinealtasuna mito bat da, erromantizismo hutsa. Baina haien interes bakarra guk gure izateari uko egin eta espainolak izatea da. Historia ere haiek idatzi eta kontatu digute, haien historia, ez gurea. Joko maltzurra egiten ari dira gure nortasuna ezabatzeko.

Zure esanean egun boterera iristen diren emakume asko patriarkalak dira.

Noski. Zuk kargu bat duzunean, bai enpresa munduan, bai unibertsitatean, bai edonon, patriarkatuaren interesak defendatu behar dituzu, bestela ez duzu kargu hori izango. Hori gertatzen ari da. Emakume askok boterea daukate, baina patriarkalak dira. Emakume asko daude feministak direla esaten dutenak, baina benetan patriarkalak dira.

Zuretzat parekidetasuna aldarrikatzea kultura matrilinealera bueltatzea al da?

Niretzat erronka horixe da, gure jatorrira bueltatzea, kultura matrilinealera. Gure bizimodua, antolaketa modua, balioak... berreskuratu egin behar ditugu. Alienazio prozesu batean gaude; komunikabideak, unibertsitateak, eskolak... Modu oso anbiguoan espainolak bihurtzeko prozesuan murgilduta daude. Ez badugu ezer egiten, belaunaldi pare batean haien helburua lortuko dute.

Jendarte matrilineala orekatuagoa eta zoriontsuagoa begitantzen duzu?

Zalantzarik gabe. Elkar hobeto zainduko dugu, haurrak eta pertsona helduak hobeto zainduak izango dira, haurrak komunitatearenak izango dira –eta ez jabetza pribatua, gaur gertatzen den bezala–, zahartzaroan dauden pertsonak ez dira baztertuak izango, pertsona jakintsu bezala ikusiak izango dira eta pisua izango dute komunitatean, etxekoandrearen jakintzari eta kudeatzeko gaitasunari garrantzia emango zaio...

Kultura matrilinealean, emakumeak al dauka zaintzaren pisua?

Hori patriarkatuaren engainu interesatu bat da. Kultura matrilinealetan zaintza komunitatearen ardura da, gizon zein emakume. Patriarkatuak esaten du zaintza emakumearen lana dela, emakumeak hobeto zaintzen duela, horretarako jaioa dela. Eta horretatik etekin ekonomikoa ateratzen du patriarkatuak, emakumearen esplotazioaren kontu. Hori guztia, gainera, erruduntasunaren gainean eraiki du –zaintzen ez duen emakumea errudun sentitzen baita– eta Eliza arduratu da hori elikatzeaz, erruaren pisua jartzeaz. Kristau ona izan behar horretan patriarkatuaren interes asko ezkutatzen dira. Dena ondo pentsatuta dago. Adibidez, garai batean atsolorrak ospatzen ziren haur bat jaiotzen zenean. Komunitate guztiak ospatzen zuen haurraren etorrera eta nolabait haur horren zaintzaren ardura hartzen zuen. Eliza tartean sartu zenean, gizona jai horretatik apartatu zuen, horiek emakumezkoen gauzak zirelakoan.

«Kultura matrilinealetan zaintza komunitatearen ardura da, gizon zein emakume. Patriarkatuak esaten du zaintza emakumearen lana dela, emakumeak hobeto zaintzen duela, horretarako jaioa dela...»

Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua

GAUR8 Larunbatero **GARA**rekin

infraganti
MAITANE ALONSO

Maitane Alonso 18 urteko sodupetarrak elikagaien bizitza luzatzen duen makina bat garatu du. Janari soberakinei probetxua ateratzeko nahiak eraman zuen etxeko txoko batera ikertzera, eta, handik, nazioarteko zientzia azoketara heldu da, gazteek mundua aldatzeko duten gaitasuna egiaztatzera. Gakoa, jakin-mina piztu eta hauspotzea.

Irudian, Maitane Alonso Sodupeko ikerlari gaztea. Aritz LOIOLA | FOKU

Zer egin daiteke jakien bizitza luzatzeko? Galdera potoloa da eta arazoari irtenbidea bilatzeko ahaleginak hamaika ertz izango ditu ziurrenik, goseak kolpatzen duen bitartean elikagai tonak zaramara botatzen baitira mundu global honetan. Planeta osoan, seguruenik, milaka buru arituko dira arazoari behin betiko konponbidea nola eman pentsatzen. Bien bitartean, baina, Euskal Herrian, Sodupen, balizko irtenbide bat sortu da, makina forma du eta 18 urteko gazte batek garatu du. Orain dela bizpahiru urte hasi zen gaiaren inguruan ikertzen Maitane Alonso.

Sodupeko gaztea medikuntzako bigarren maila ikasten ari da uneotan Euskal Herriko Unibertsitatean. Asmatu duen makina aurkezten munduko zientzia eta teknologia azoka garrantzitsuenetan egon da azken boladan, baita sariak eta goraipamenak jaso ere. Zientzia erakusleiho horietan ikusi duenarekin harrituta itzuli da. «Ez nekien hainbeste gazte egon zitezkeenik hainbeste ideia zoragarrirekin!», kontatu dio GAUR8ri.

Arlo publiko zein pribatutik laguntzak jaso dituzten ikerlari gazte asko ezagutu ditu, baita laguntzarik gabe sekulako proiektuak garatzen dituztenak ere. «Horrek adierazten du gazteok sekulako potentziala daukagula mundua aldatzeko. Egia den arren sarri ez dugula erabiltzen», nabarmendu du. Ildo horretan, aipatu du ulertzen duela gazte askok ikasteko erakusten duten ilusio falta. «Niri ere pasatu zitzaidan, unibertsitatean sartu arte ez nengoen pozik hezkuntza sistemak proposatzen zuenarekin: ez da bultzatzen sormena, jendeak bere kabuz pentsatzea, ideiak izatea... Nire kasuan, ikerketa proiektuak piztu zidan gehiago ikasteko gogoa, baina ulertzen dut batzuk desilusionatuta egotea». Horregatik, Alonsoren ustez, «egungo hezkuntza sistema guztion artean aldatu beharko genuke jakin-mina sustatzeko».

Unibertsitatera saltoa ematean igarri zuen aldaketa Alonsok. «Unibertsitatean jakin-mina pizten dizute. Zorte handia izan dut irakasleekin, nire proiektua bultzatu eta ikertzen jarraitzera animatu nautelako». Mikrobiologia saileko laborategiak utzi dizkiote lanerako, eta izugarri eskertzen du laguntza hori, baita unibertsitatearen zein enpresen aldetik jasotako sostengua ere.

Zientzia udalekuak

Istorio guztietan bezala, hasiera bat dago. Alonsorenaren kasuan, etxean du abiapuntua. Txikitatik hartu du parte Elhuyar Fundazioaren udalekuetan eta zientzia azoketan, eta, beraz, oso gaztetatik izan du ikerketarekiko zaletasuna. Etxean bertan izan zuen elikagaien bizitza luzatzeko makina bat sortzeko ideia.

Familia giroko barbakoetan soberakin asko gelditzen ziren batzuetan. «Ez zen bidezkoa hainbeste janari alferrik galtzea. Ikertzen hasi eta ikusi nuen kontserbazio arazoak tarteko mundu osoko jakien herena bota egiten zirela!». Alonsok kontatu duenez, «mundu mailako arazo» bati soluziobide handi bat bilatzeak baino, «zerbait egiteko beharrak» bultzatu zuen bera arazoa ikertzera.

Jakien kontserbazio txarrak eragindako gaixotasunen arazoa ere aipatu du Alonsok.

Medikuntzako bigarren maila ikasten ari da EHUn Maitane Alonso. Aritz LOIOLA | FOKU

«Egun hartzen ditugun gaixotasunetako asko elikagaien kontserbazio txarrak eragindakoak dira. Gainera, epe luzera minbizia eragin dezaketen produktuak erabiltzen dira jakiak kontserbatzeko», azaldu du. «Nik asmatu dudana elikagaiak kontserbatzeko metodo berri bat da, jakien iraungipen-data luzatzen duena. Gainera, ez ditu erabiltzen eragin kaltegarriak eta ezezagunak izan ditzaketen produktu kimikoak», azaldu du.

Plastikorik gabe

Alonsok asmatutako makinak badu beste abantaila bat: plastikoen erabilera gutxitzen du eta «substantzia kimikoek eragin ditzaketen gaixotasun asko ekiditeko» lagungarria du.

Makinaren sorrera ekarri zuen ideien zurrunbiloak etxe ondoko txoko batera eraman zuen Maitane Alonso, inork Steve Jobsen ibilbidearen hasierarekin parekatu duen urrats batean. Izan ere, oso baliabide gutxirekin hasi zen Sodupeko txoko hartan jakien bizitza luzatzeko abentura.

Asmatutako makina txikia eta luzea da. Tuperra erdian jarri eta hamar segundoz utzi behar da bertan. Sistema industria erabilerara ere egokitu du, dendei eta industriari begira

Elikagaien kontserbazioa luzatzen da «plastikorik erabili gabe» eta «eragin kaltegarriak eta ezezagunak izan ditzaketeen produktu kimikoak» erabili beharrik gabe

Sortutako makinaren funtzionamenduari dagokionez, korapilatsuagoa da gaian aditua ez denarentzat "Aire tratatudun ontziratzea" izena duen makinaren funtzionamendua azaltzea. Alonsok zehaztu duenez, makina sortzeko, deskarga elektrikoak ematen zituen sorgailu bat eta haizagailu bat erosi zituen. Deskargekin airean dauden molekulak bereizten dira, eta, haizagailua, berriz, molekulak produktuaren gainetik bultzatzeko erabiltzen da. «Hala, molekulek ez dituzte mikroorganismoak hiltzen», azaldu du. «Makinak zirkuitu itxi bat sortzen du aire hori bera erabiliz, energia gutxiago erabiltzeko».

Formari begira, «txikia baina luzea» den makina bat sortu du etxerako. Erabilerari dagokionez, «plater edo tuper batekin erabiltzea hobe da. Tuperra erdian jarri eta makinan uzten duzu hamar segundoz. Ostean, tapa jartzen diozu eta kito! Janariak lehen baino askoz gehiago iraungo du».

Zehaztutakoaren arabera, elikagai guztiekin erabil daiteke. Barazki eta frutekin ere proba egin du Alonsok, eta, dioenez, berehala galtzen diren sagar zatiekin, adibidez, egiaztatu du denbora luzeagoan kontserbatzea lortzen dela.

Sodupeko gazteak ikerketarako grina izan du gazte-gaztetatik, eta, bere esperientzia ikusita, uste du hezkuntza sistema aldatu behar dela gazteak proiektuak garatzera bultzatzeko. Aritz LOIOLA | FOKU

Behin mekanismoa asmatuta, prototipoa garatzea zen bigarren erronka. Horretan ere Sodupeko gaztea ez zen kikildu. Adierazi duenez, hainbat ikastaro egin behar izan zituen eta informazio ugari bildu. Ahaleginak emaitza izan zuen. Kilse, Magma, J-Pack, Eurozon, Harakintza, Luis Thate eta Ameztoi Anaiak enpresen babesa lortu zuen. Enpresok euren instalazioak jarri zituzten gaztearen esku probak egin eta makinaren etxeko bertsio bat sortzeko.

Behin makina prest izanda, ezagutzera ematea zen hurrengo erronka. Bada, Alonsok "IAM" bloga sortu zuen proiektua ezagutarazteko. Blogaren izena Alonsoren izenabizenen laburdura da, atzetik aurrera irakurrita eta ingelesezko esamoldearekin jolas eginez. Azaldu duenez, «bakoitza den bezalakoa izan daitekeela» irudikatu nahi du izenak, «guztiok aukeratu dezakegula gure bidea eta zer izan nahi dugun erabaki».

Nazioarteko zientzia azoka ugaritan izan da Maitane Alonso. Gazteek, «laguntzekin eta laguntzarik gabe», mundua aldatzeko duten gaitasuna ikusi ahal izan du bertatik bertara

Sodupeko gaztea oso eskertuta dago jaso duen babesagatik. Gueñesko Udalaren eta inguruko enpresen laguntza jaso du, eta EHUn ere ikertzera eta egitasmoa garatzera bultzatu dute

Alonsok hasitako bidea, hori bai, ez da oraindik amaitu. Makina merkaturatu baino lehen «ikerketa sakonagoak» egin nahi ditu orain, bereziki gaixotasun ugari sortzen dituzten patogeno espezifikoekin lotuta. Izan ere, onkologoa izan nahi du Alonsok, txikitatik izan duen ametsa betez. Bere proiektua ere horrekin lotuta dago neurri handi batean. «Konturatu nintzen minbizi kasu asko elikadurarekin lotuta daudela. Pentsatzekoa da minbiziaren aurkako sendagai bat aurkitzeko lanean jende asko ari dela, bada, nik, gaixotasuna aktibatzea ekiditen lagun dezakegula pentsatu nahi dut. Kasu gutxi batzuk soilik balira ere...», azaldu du.

Ecofriendly filosofiaz ere aritu da GAUR8rekin. Alonsoren iritziz, egungo sisteman ez da errealista produktu kimiko guztiak eta ontziak desagerraraztea. «Ez da aukera erreala, horregatik sortu nuen metodo hau». Gaineratu duenez, «guztiz naturala da eta irtenbide posible bat gosearen aurkako borrokan. Familien ekonomiarentzat ere positiboa da, dirua aurrezteko». Proiektu berrien zain, oraingoz laborategian sartuta jarraitzen du Alonsok bere egitasmoa hobetzen.

Nerea Gotil

Garazi Goia - @ GaraziGoia
Idazlea

Deshumanizazioaz

Urte askoan lanean egon nintzen bulegoen ondoan, Londres erdiko kale ezagun batean, presentzia handiko etxe baten aurrean, ezlekuan balego bezala, eskale bat egoten zen. Dirua eskatu ordez irribarreak eskatzen zituen. Kartoizko xafla batean eskuz idatzitako testu bat baino ez zeukan. Nahiz eguzkia edo euria ari, han egoten zen beti. Irribarreak eskatuz. Hori bakarrik. Bueltan, berak beste irribarre bat eskaintzen zuen.

Sinesgaitz begiratzen zioten denek. Mesfidati. "Ziur badagoela irribarrearen atzetik beste zerbait". "Bere bizitzako istorio dramatikoa izango du hurrena kontagai. Badaezpada ez diot begiratu ere egingo". "Irribarre bat luzatu berari, nola bada, ezezagunei hobe ezer ez ematea, ezta irribarre bakar bat ere". Antzeko pentsamenduak izango zituzten buruan gehienek.

Bilbo erdiko kale nagusietako batean, goizeko lehen orduan, lanera bidera zihoazen jende emanaren erdian, irrist egin eta G lurrera erori zenean, pertsona bakar bat ere ez zitzaion gerturatu zer moduz zegoen galdetzera. Ez dakit zer ibiliko zen haien pentsamendu berekoi eta indibidualistetan. Logura zeukatela, bilerara berandu iritsiko zirela, gosaltzeko denborarik ez zutela izan, ajea gainetik ezin kenduta kafe bat hartzeko irrikatan zeudela. Edo, bestela telefonoaren atzean ezkutatu ziren, premiazkoa ez zen telefono dei hura egin nahian edo axola ez zitzaizkien albisteak Twiterren irakurriz.

Bilboko aireportuan, terminaletik atera eta lasai oinez zihoazela, kontrako norabidean arrapaladan zetorren gizon hura saihesteko denborarik ez zuen izan L-k. Bi segundoren buruan odol putzua ikusi zuen lurrean eta gizonari sudurreko hezurra hautsi ziola pentsatuz aurkitu zuen bere burua, zer gertatu berri zen ohartzeko denborarik ere gabe. Gizonaren "telefonoa", "telefonoa", "telefonoa utzi dut hegazkinean" oihuek oraindik sinesgaitzagoa egiten zuen une hura. TELEFONOA. Ditxosozko telefonoa ahaztu zitzaion. Bere onetik aterata, telefonoa berreskuratzea helburu bakartzat zuen.

Bien bitartean, han inguruan zegoen jende guztiak bere horretan jarraitu zuen, gertatzen ari zenaz guztiz entzungor. Negarrez ari zen haurra edo zer gertatzen ari zen ulertzen ez zuela izututa alde batean zegoen 4 urteko neskaren inozentzia eta zaurgarritasunak ere ez zuen gupidazko imintzio bakar bat ere eragin inguruan. Zer egiten da horrelako kasuetan? Gizonari salakuntza bat jarri jarrera publiko desegokiagatik? Edo akaso, horrelako erreakzioa izateko kemena duen edonor deshumanizazioak jan du dagoeneko eta guztiz alferrikakoa da ezer egitea. Bai bera bai golpea gertatu eta hiru minutura lasai-lasai azaldu zen bere emaztea ere.

Teknologia berrien esparruan gizatasuna zalantzan jartzen da hainbatetan, adibidez sare sozialek duten eragina balio etiko batzuk manipulatzerakoan, sortzen ari garen bizitza indibidualistak aldarrikatzerako orduan, sortzen ditugun «alter ego» edo alegiazko pertsonaien inguruan. Deshumanizazioaren hainbeste adibide daude eguneroko edozein leku eta ordutan. Aste honetan Nazio Batuek antolatutako Klima Ekintzarako Goi Bileran gertatutakoak tristura eman dit. Greta Thunberg ekintzaile ekologista nerabearen diskurtso hunkigarria sare sozialetan gehien ikusi den bideoa izan da. Thunbergek duen helburuaren etikotasun, zuzentasun eta balio handiko lanari kontrajarriz, aldaketa klimatikoa bezain arazo larri bat konpontzeko, haur bat "erabiltzeak" ez al dio helburuari gizatasun guztia kentzen? •



Irribarre bat baino ez du eskatzen. Eskaeraren atzean ez dago beste ezer ezkutatuta.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ESPAINIAKO BIBLIOTEKA NAZIONALA

FRANKISMOAREN ERREPRESIOA ETA LAZTURA BILBOKO KARTZELETAN

1937ko ekainaren 19ko arratsaldean armada frankista Bilbon sartu zen. Alemania naziaren eta Mussoliniren Italiaren laguntzaz dozenaka euskal herri bonbardatuta ehunka zibil hil izana ez zuten nahikoa, nonbait. Hasi zen errepresioak erbestera eraman zituen bizkaitar asko, beste askok beren lana galdu zuten, haietako milaka kartzelatu egin zituzten eta ia 600 Larrinagako kartzelan eta Derioko hilerriko hormetan erail. Gehienak fusilatuta, baina haietako 34 garrotez. Artikulua ilustratzen duten bi irudiak autore ezezagunekoak dira, baina laztura eta errepresio frankista bikain islatzen dituzte. Bilboko Eskolapioetan zegoen kartzelan eginak dira. Milaka euskal herritar egon ziren bertan pilatuta. Goiko argazkian apaiz bat ageri da kartzelako patioan presoei hitz egiten. Behekoan, presoak argazkian ateratzeko prest, aurrean beren kartzelariak dituztela.

BIDAIA ALDIZKARIA

7haizetara

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN **SALGAI**

Loirako gazteluak

Erregeen Haraneko aztarnak

«Game of Thrones-eko» istorioak motz gera daitezke Frantziako Antzinako Erregimenekoekin alderatzen baditugu. Horren lekuko, Hexagonoaren erdialdean kokatzen den Loirako haran ederra.

Eta gainera: Queensland, hegoaldetik iparraldera • Jamaikako esentziaren bila • Britainia Handiko trenbide mitikoenak • Karakorumeko errusiar mendian barna

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

90928
9 771887 675001